


# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1989ko Apirilak 14 18. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean

### “Mondra” atzo eta gaur



*Atxabalpeko futbol zelai berria*

Mondragón Club de Futbol taldeak aste honetan lehendakari berria hautatuko du. Kargura hautagai bakar bat aurkeztu da Jose Luis Etxebarria “Porru” eta ziur asko bera izango da hurrengo urteetan Mondraren presidentea. Futbol talde hau dugu urtetan herrian izan den bakarra eta lehendakari-tzan egingo den aldaketa hau aitzaki bezala harturik, gaurko honetan, Klubaren sorrera arte herrian izan diren futbol taldeen eta beronen garapenaren berri eduki nahi izan dugu. (14. or.)

### ORAIN ETA HEMEN

#### Korrikak

Euskararen aldeko 2.100 km.ko lasterketa, datorren astean birritan zeharkatuko du Arrasate. Horren inguruan ekintza ugari antolatu dira

(9. eta 10. or.)

**Drogamenpekotasunaren arazoari konponbidea emateko** lehenengo pausuak ematen ari dira. Horra hor, senideen arteko bilerak eta, maila honetan lan egiteko, batzordea eratzeko asmoa (12. or.)

#### ELKARRIZKETA

##### José Luis Etxebarria, “Porru”

Atxabaltarra Udaltzaingoaren burua eta, gaurtik aurrera, Mondrako Lehendakari berriarekin solasean izan gara (17. or.)

#### PODIUMA

Datorren astebukaeran hemen “Euskadiko Igeriketa Txapelketa” izango dela aprobeztatuz, disziplina honen entrenatzailea den **Juan Carlos Conderekin** egon gara (19. or.)

#### FOTOZAHAR SARIKETA

Badaukagu lehenengo sariduna, jarraitu postalak bialtzen (27. or.)



**Etxe-Aundi**  
Restaurant

Torre Auzo, 9 - Teléfono 943/781956 - OÑATI

## BEHARREZKO TELEFONOAK

### Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea .....	795300
Igualatorioa .....	790500
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak) .....	793900
(emakumeak) .....	794411
Buru osasunerako zentrua .....	799011

### Gurutze gorria:

Bergara .....	765576
---------------	--------

### DYA

Antzuola .....	766291
----------------	--------

### Anbulatorioak

Arrasate .....	791357
.....	799722
Oñati .....	780852
Eskoriatza .....	798896
Aretxabaleta .....	797458
Aramaio .....	(945) 455116

### Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulanziaz .....	458744
------------------------------	--------

### Udaltzaingoa:

Oñati .....	780411
Bergara .....	761469
Arrasate .....	791439
Aretxabaleta .....	791052
Eskoriatza .....	790322

### Ertzantza:

Arrasate .....	797199
----------------	--------

### Suhiltzaileak:

Udal taldea .....	790900
Udal taldeko suhiltzaile	
burua .....	792072
Zubillagako Eskualde-Parkea .....	782800

### Matxurak:

Urak (udal zerbitzua) .....	790900
Elektrizitatea (Iberduero) .....	790581

### Garraioak:

Taxiak .....	791222
P.E.S.A. ....	791419

### Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza .....	797211
Abaroa jubilatuen egoitza .....	798157

### Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte .....	798777
--	--------

## 14 OSTIRALA

- **Zinea:** Alai: "7 kilos en 7 días" Novedades (Bergara): "Gorilas en la niebla" 10,30etan.
- **Rock jaialdia:** Sebero Altuben, 10,30etan: Angiolillo, Hor Konpon, Kaput.
- **Kantaldia:** Mikel Laboa, Eloorrioko Arriola Aretoan, 10etan.
- **Goardiako farmazia:** Amezua, Santamaina.

## 15 LARUNBATA

- **Zinea:** Alai: "Pathfinder" Novedades (Bergara): "Noche de miedo II" 5, 7,30, 10,30.
- **Futbol partidua:** 4,30etan, Zaldibarren: AED - AEK.
- **Abesbatzen topaketa:** 4,30etan, Amayan, "Deba Bailarako Eskola arteko II. Abesbatzen topaketa".
- **Goardiako farmazia:** A. Ruiz, Maalako Arrabala.

## 16 IGANDEA

- **Zinea:** Alai: "Pathfinder" Novedades (Bergara): "Gorilas en la niebla" 5, 7,30, 10,15.
- **Korrikako ekitaldiak:** 10,30etan, Txirrindulari martxa Arratsaldean, trikixak, txotxongiloa, kuestazioa.
- **Goardiako farmazia:** A. M. Morales, San Andrés.

## 17 ASTELEHENA

- **Zinea:** Alai: "Pathfinder" Novedades (Bergara): "Gorilas en la niebla" 7,30etan.

- **Goardiako farmazia:** Ruiz Torre, Erdiko kale.

## 18 ASTEARTEA

- **Zinea:** Alai: "Pathfinder"
- **Korrika txiki:** 2,30etan.
- **Umeen jolasak:** 7etan, eta kalejira nagusientzat.
- **Afaria:** 9,30etan, Eskola Politeknikoan.
- **Korrika:** 12,45etan Kanpatzarretik sartuko da.



Badator Korrika!

- **Hitzaldia:** Monterronen, 7etan, "Eritzi eta esperientzi trukaketa taldeka": J.A. Irigarai, J.M. Larea, J.C. Etxeogien.

- **Goardiako farmazia:** S. Español, Iturriotz.

## 19 ASTEAZKENA

- **Korrika:** 8etan Mecatik sartuko da.
- **Goardiako farmazia:** Corcuera, Elcano.

## 20 OSTEGUNA

- **Zine Kluba:** "Abrete de orejas". Zuzendaria: Stephen Frears. Amayan, 8,30etan.
- **Goardiako farmazia:** Irizar, Erguin.

## ERAKUSKETAK

- **Juan Chillida:** Pintura-erakusketa, Galeria 44 (Zerkaosteta, 8), 15era arte.
- **Orain dela 30.000 urte: Labeko Koba:** Monterronen, 21era arte.

## IKASTAROAK

- **Masaje ikastaro intensiboa:** 15 eta 16an. Deba Garaiko Yoga Naturismo Elkarteak antolatuta, bigarren mailako masaia ikastaroa (kiromasaia teknikak, kirolmasaia, masai terapeutikoa, hidrotapia, mogimendu kiropraktikoak...). Izenemateak: Jose Luis Iñarra pasealekua, 8an. Tfnea.: 79 35 76. Prezioa: 5.000 pta.

# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

## Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)  
Zeharkale Estalia, 1-1. B  
20500-ARRASATE -TF.797164

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala

**Zuzendaria:** Joxe Aranzabal

**Erredakzioa:** Juan Luis Azkarate  
Bego Zubia

**Publizitatea:** Amaia Garro

**Maketazioa:** Goio Arana

## Erredakzio

**-kontseilua:** Jose Felix Diaz de  
Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki  
Mendiguren

**Kolaboratzaileak:** Josemari Velez de  
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele  
Zuazubiskar, Patxi Montero,  
Juan Martin Elexpuru, Mikel  
Arregi, Eukeni Olabarrieta, Arantxa  
Lizaso, Gerardo Markuleta,  
Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai,  
Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Mila  
Galañena, Blanka Jauregi, Klarion  
Taldea, Ioseba Vallés, Karmelo  
Uribarren.

**Inprimategia:** Gertu Koop. E.

**Banaketa:** Orkatz Skaut-Taldea

**Harpidetzak:** Zeharkale Estalia, 1-  
1b. Tfnoa. 797164


**Copyright:** ARRASATE PRESS

**Tirada:** 2.900 ale

**Lege-Gordailua:** 1124/88

**ISSN:** 0214-4654

ARRASATE PRESSek ez du bere gain  
hartzen aldizkarian adierazitako esanen  
eta eritzien erantzunkizunik.



## Industri ardatzak ekialderuntz

Gauza jakina da Europako indus-  
tri ardatza ekialderuntz jotzen ari  
dena. Euskal Herriari dagokionez,  
gero eta urrutiago geratzen ari gara  
bihar edo etziko industrigunetik.  
XX. mendean zehar gure industriak  
denetarik egoerak ezagutu ditu,  
orain onak gero ez hain onak izanik.  
Gaurreguneko nondik norakoek,  
berriz, ez digute lasai irauteko auke-  
ra haundirik esakaintzen; are gehia-  
go, XXI. mendea atarian dugularik  
bildurra harrapatzen gaitu, azkene-  
ko urteotan izan dugun bizimodu  
maila eraman ahal izango ote dugun.  
Zaila ipintzen ari zaigu.

Munduan zehar izaten diren era-  
kustazoken batetara joanez gero  
laster ohartzen gara mendebaldeko  
industriak duen Damoclesen beste  
ezpata batez. Duela zenbait urte arte  
guretzat kaltegabeak ziren asiarrak  
batzuek bizitza ezinezko bilakaterazi  
nahi digute. Ekialdetik datorkigun  
arrisku handia. Uhin horia. Tai-  
wandarrak, korearrak, txinarrak,...  
Ez da, ez, nolana horko gainera erori  
zaigun erronka.

Eta guzti horren ondorioz, mun-  
duko industri ardatza Atlantikotik-  
mendebaldeko Europa eta EEBB-  
Pazifikora igarotzen ari da. Asiako  
ohizko industri ahalmenari, muga-

pen horretan Japoni bakarrik sar ei  
genezake, lehen aipaturiko  
herrialdeena gehitu beharko  
genioke, Japoni bere kanpo-  
inbertsioak EEBBtik bere inguruko  
nazio haietara aldatu nahi bide  
baititu. Adituek diotenez, herrialde  
haien arteko txapelaldun berria  
Tailandia izango da. Bertan ematen  
diren giza eta ekonomi nolakotasu-  
nak egokienak omen dira, orain arte  
zero azpitik ihardun duen herrialdea  
industri erraldoi bihurtzeko.

Nolanahi ere, eta hona hemen gi-  
zadiaren kontraesanak, estatu horien  
gero eta aberastasun haundiagoak ez  
du euren bizilagunen bizitza maila  
jasoko. Populazioaren hazkunde  
azkarra balazta bailitzan arituko da,  
"per capita"-ko errentak hobekuntza  
txikia erakutsiko duenlarik.

Zer egin behar dugu mendebal-  
darrok lasterketan ahalik eta toki  
gutxien gal dezagun? Nork jakin!!  
Galdera horri erantzun nahian ari  
dira industri gizon guztiok, asmatu-  
ko ote duten ez dakitelarik.  
Soziologoek ere lan handia dute  
asmakizun horretan, orain arte zibi-  
lizazio mundutzat harturikoak bere  
koordinadak zeharo aldatu beharko  
baititu. Beraz, denok lanera!

*Josemari Velez de Mendizabal*

# LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa  
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe, 2

Erakusketa: Sancho Abarca, 6

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



PEÑACOB  
Auto-Eskola

Zarugalde, 46  
Tfnoa: 79 29 93  
79 14 01

ARRASATE



**gili gili**

Iturriotz,9 Tfnoa:799457

**GIROA  
AROTZAK**

Iturrioz 14, ARRASATE



ARRATE IRRATIA, S.A.  
FM - 101,5

Goizeko 9etatik  
Gaueko 11ak arte  
Irratsaio denak EUSKARAZ

ARRATE IRRATIA  
EUSKAL SINTONIA

**IBARRA Garajea S.A**

garajea  
Automobil-  
konponketa  
Garabi zerbitzua

**EBRO  
NISSAN**

**ARTE LENIZ  
koadro  
eta moldurak**

Leintzibar kalea 4, 79 37 64 ARRASATE

**EPELDE**

Argazki  
denda

Iturriotz 24

## Kaixo Arrasate Presseko langileok:

Aspaldian gutxi hitz egin izan den gai bati buruz komentario labur bat egingo dut. Gaia " Bizikletak eta Errepideak " da.

Jakina da, aspaldi honetan txirrin-  
duan ibiltzeko afizioa asko ugald  
dela eta oraindik ere gorantz, alegia,  
gehitzen doala. Arrazoi horrexega-  
tik, ibilbideak ere mugatuz doaz, eta  
norberak edonora joan nahi duela  
ere, beti du trabaren bat, nahiz bere-  
bil asko dabiltzala edota bidea nahi-  
ko hondatua dagoela, etab...

Adibide gisa, Aramaixorako bi-  
dea dugu, hasi Garagartzako elizatik  
eta Araban sartu artean oso gaizki  
dagoena.

Hau dela eta, politikoei eta kasu  
honetan alkateari zuzenduz, errepide  
horren eta beste batzuen konponke-  
tak egiteko ardura hartu dezala eska-  
tuko nioke. Eta nahiz eta hemen leku  
gutxi izan arren BIDEGORRI bat  
eraikitzea edo egitea, ez dut uste  
idea txarra litzakeenik.

Besterik gabe, esker mila.

U. B

## Agur lagunok

Aurreko igandean harrituta utzi  
ninduten eta idatz-matz hau egitea  
bururatu zait, jakitun egon zaitezten  
gure erreka bazterrak eta mazte-  
rrak nola dauden eta nola sufritzen  
duten mundu honetako espezierik  
lastimagarrienak sortutako kalteek  
ekarritako zabor-kiratsaren eraginez.

Une honetan, zuhaitzak eta bazte-  
rrak loratu eta emetzen ari direnean,  
danba! erreka beltzaren islada San  
Prudentzio aldean. Eskerrak Oñati-  
koa garbiago datorrenari, osteran-  
tzean, kaka zaharra, edo erreka zaha-  
rra! Pintoreek ere ez lukete nahaske-  
ta naturalagorik burutuko!

Ea, bada, zentzu apur batez gure

inguru-minguruak geure bailiren  
tratatzan ditugun. Besterik ez, beraz,  
kukua datorrela eta, solorik solo ibili  
barik, bazterrak ondo miatu eta erre-  
ka gardenago aurkituko dugu.

Mendiku

## Kaixo herritarrok!

Udaberriarekin batera (Udazke-  
nean ehiztariak) erreka eta erreka  
gardenetako arrantzale ugari azaldu  
da Aramaixo erreka bazter eta  
txoko guztietan. Kainabera hartu,  
gomazko oinetakotzar horiek, zu-  
mezko zorroa, kapela (eta gainera  
berdea) eta, halabeharrez eroatekoa  
den kotxea eta amorrai edo arranka-  
riak harrapatzeko afanarekin, ingu-  
ruko bitxikeria, bidezidor, harri la-  
bankor, eta gainontzekoak aztertzen  
dituzte, satorrak lurra aztertzen duen  
legez.


Laster ehiztarien txisteez ere  
balioko dute guzti hauen aferak eta  
gainontzekoak ulertu ahal izateko,  
esaterako:

- "halako tokitan kristorenak  
jasak"
- "librakoa harrapatu joat"
- "atzo dozena bat harrapatu  
naixuan"

Gezurra dela, egia dela, goiza  
eman, eta poz pozik etxera, datorren  
astean ere, zeozer harrapatuko dute-  
lakoan.

Beraz, bihar bertan inguru-min-  
guru ibil gaitezke, errekarik erreka  
edo Aramaixoko bidean bihurgune-  
rik bihurgune. Paseatzea ere ekolo-  
gia omen da.

Derzu



# Zer deritzozu gazteek soldaduzka nahitaez egin beharrari?



**Antonio Tena**  
(langilea)

Ez nago ados, soldaduzkan gure eritzia ez bait dute kontutan hartzen. Insumisioa ondo ikusten dut, desobedentzia osoa suposatzen bait du, bai militarren aurrean, bai gizarte honen aurrean.



**Karmen Otxoa**  
(irakaslea)

Derrigorrez egin beharra ez dut ondo ikusten. Oso tristatzen naiz egunkarietan eta horrenbeste istripu gertatzen direla irakurtzen dudanean, gainera sarriegi gertatzen dira.



**Espe Zubillaga**  
(etxeakoandrea)

Ez dut uste jendeak derrigorrez joan behar duenik. Hiru hilabeterekin, instrukzioarekin nahikoa dela uste dut. Objezioa ondo ikusten dut hilabete gehiago izan arren, baliogarriagoa da eta gazteek hori egingo dutela uste dut..



**Angel Agirre**  
(langilea)

Bertakoek ez dutela joan behar uste dut, bertan nahikoa daukate eta. Soldaduzka lelokeria bat da, denbora galdu baino ez da egiten.

★ **L E N I Z** ★

**A U T O E S K O L A**

ARRASATE

**IKASKUNTZAK**

ESKORIATZA

**TEORIKA**  
ORDENADOREAKIN

**TXOFERTZA**  
VOLKSWAGEN  
GOLF TURBO

ALDAY, 9-TF. 794604 ARRANA, 13-TF. 793659

**UGARTE**

**industri hornidurak**

Arrasate pasalekua  
Tfnoa: 79 73 00-8396  
Telefax: 793412

**GABINETE  
MEDIKOA**

**Medikuntza  
Digestibidea  
Endoskopia  
Ekografia  
Analisak**

Ferrerias, 1.  
Tfnoa: 79 15 08

**BIONA**

Zurgin Kantoi, 2
Tfnoa: 79 20 04
ARRASATE

“Une honetan eta Espainiako eta Euskal Agintariak burutzen dituzten azpiegitura-planen aurrean, Arrasate-tik, bete betean, egoeraren hobekuntza erreibindikatzeko da, Deba Garaia Gipuzkoako industrialderik garrantzitsuenetako bat bait da eta ezin dezakegu kanpotik datorkigun lana baztertu; gainera, soluziobideak aurkitzeko aukerra dugunean. (...) Europako irteera ezinbestekoa da eskualde honetako enpresentzat, hauen gestio-planetan esportazioa lehentasunezko helburu bait da”

(Xabier Zubizarreta, Arrasateko alkateak  
“Economia Gipuzcoana” aldizkarian)

“Oso zoriontsuak ginen laurok hortik zehar joaten ginenean. Gogoratzen dut, Arrasateko alkatetza utzi behar zuenean, Greziara joateko asmoa genuela. Gaur egun ere, gogoan daukagun bidaia da. Foiletoak hartu eta liburuak erosi genituen nora joan eta zer ikusi erabakitzeko. Orduantxe etorri zen Diputatu Nagusiarena eta Uda pikutara joan zen”

(Gloria Urteaga, lehendakariaren emazteak  
“Imagen Vasca” aldizkarian)

“Arrasaten, 1979ko Udal Hauteskundeetan hautatuetako bik baino ez dute jarraitzen gaur egunean zinegotzi lanetan. Biak PSOEkoak dira, Jose Luis Lana eta Jose Luis Mendiartz. EEko Mikel Larunbe ere zinegotzia izan zen berriro, baina urte bat geroago kargua utzi eta Iruñeara joan zen”

(L.A. Kazetariak “El Correo Español” egunkarian)

“Euskara mailan, edo kontsentsu sozial zabala lortzen dugu edo ez dugu zer eginik. Korrikak ez du horrelako kontsentsurik lortzen”

(Esther Larrañaga, Gipuzkoako Foru Aldundi-ko Kultur zuzendariak “A mi que me cuentas” irratsaioan)

## Udalean zinegotzi gisa 10 urte egin ondoren zer nolako balorazioa egiten duzu urte horietaz?

Beno ni hiru udalbatzatan egon naiz zinegotzi gisa, Ardantzarekin, Alvaro Arregirekin eta Xabier Zubizarretarekin.


Lehen legegintzak guri Udalarekin harremanetan jartzeko balio izan zigan, bertan lanean egon behar bait duzu, bertan zer egiten den ulertzeko. Garai hartan PSOEko hiru zinegotzi geunden eta nahiko legegintza korapilotsua izan zen garai hartan zeuden tentsio eta arazo politikoengatik. Ez genbiltzan lasai eta sarritan plenoetara ere ez nintzen batere lasai joaten.

Garai hartan, gure ustez, harreta berezia behar zuten lekuetara hurbildu ginen, auzoetara, hain zuzen ere. Auzoetako batzordeburu izatea lortu genuen eta hiru legegintzatan mantendu dugu berau. Garai hartaz oroitzapen onak eta txarrak ditut.

Alvarorekin gu sei zinegotzi izatera pasa ginen eta dagoeneko Udal lanetarako trebatuagoak geunden. Legegintza honetan ni Obra batzordeko burua nintzen eta Zaldibarko pilotalekuaren berrikuntza eta Garagartzako enparantza ere egin genituen.

Eta hirugarren legegintza honetaz oroitzapen onak nahiz txarrak ditut. Guretzat pozgarria 1988ko aurrekontuak onartzea izan zen, berauetan lan handia egin bait genuen, baina ez zen batere pozgarria izan berauek ez betetzea. Aurrekontu hauek ez betetzea Alkatearen eta Gobernu Batzordearen errua izan dela uste dut. Dena dela, Santa Marinako jubilatuen egoitza lortu izana, oso pozgarria izan da, nahiz eta oraindik burutu gabe egon, guk dagoeneko burututa egon behar zuela uste dugu eta.

Jose Luis Lana  
Arrasateko Udalean PSOEko zinegotzia



## LORATEGI taberna

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

## ARRASATE PRESS

Zure publizitatea egiteko lekurik  
egoki eta merkeena herrian

## Jose Aranzabal


ELEKTROGAILUAK

Iturriotz, 15

Tfnoa: 791516




AKOBEREren garantia eta zerbitzu teknikoarekin



FAGOR SUKALDEEN HORNIKETA OSOA - OPARIGAIK

Doctor Bañez 8, Tfnoa: 791892

# Plan on bat baduzu gogoan kontutan izan Kutxa.



Zure neurriko Plana aurki dezazun, zein edo zeintzu diren zuri hobekien datozkizunak aukeratu besterik ez duzu.

Etorkizunean, gauzak zuk aurrikusi bezala gerta daitezten.

Zuk nahi duzun bezala.

## **PENTSIO-PLANA**

Errentagarria, zergaringarria eta zure neurrikoa. Etorkizuna duen dirua.

## **AURREZKI-PLAN ASEGURATUA**

Oso interesgarria eta zergaringarria. Seguru hazten den dirua.

## **AURREZKI-PLANA**

Interes handia aurrezki txikiarentzat. Piskanaka gehiagotzen den dirua da.

# BIDEO-EMANALDIA



## “NOEREN UNTZIA”

Tokia: **MONTERRON KULTUR ETXEA**

Eguna: **APIRILAREN 15ean**

Ordua: **Goizeko 11,30etan eta arratsaldeko 4 eta 6etan**


Prezio: **50 PTA.**

Sarrerak: **MONTERRONEN**

ANTOLATZAILEA: **ARRASATEKO UDALEKO EUSKARA BATZORDEA**



## KONTRATAK OROKORREAN



Foruen Enparantza 1, Tfnoa: 79 21 61 Fax: 796432 **ARRASATE**



**T x a n d a k a**

**Korrika, euskara... eta kitto!**

Edonori galdetzen badiogu gure herri honetan ea euskararen alde dagoen, ez dut uste bat bakarra aurka aurkituko genukeenik, edo, agian, ale solte batzu besterik ez. Baina, beste gauza bat da erabilpena. Mila aitzaki izaten dira euskara erabili beharrean erdara erabiltzeko: batzuk, ohitura eza aipatzen dute, beste batzuk (eta hau aitzaki xelebrea, benetan) Arrasateko euskara ez dela euskara polita eta ez duela merezi horrela hitz egiterik; beste batzuk, ez dakitela, zaila dela edo ez dutela horretarako astirik. Hau da, denak daude euskararen alde, baina erabili, a beno, hori beste gauza bat da. Hau da, ni euskararen alde nago, baina gaztelaniaz hitz egiten dut. Kontraesana? Euskararen egoerak ezin du kontraesan hau luzaro mantendu, gehiegizko luxua litzateke. Eta ezin dugu, ezta ere, guk erderaz berba egiten dugun bitartean, gure umeei euskaraz berba egitea exigitu (...)



*Amaia Jauregi-Arraburu\**

jendek hartu duen parte. Hau bai mobilizazioa! Eta gainera urte-tik urtera jende gehiago. Zertaz gara kexu, orduan? Zeren hau ez da KORRIKArekin gertatzen den fenomeno bakarrik, berdin gertatzen bait da Ibilaldia, Kilometroak, Araba Euskaraz, Herri Urrats, ... euskararen alde antolatzen diren ekintza eta mobilizazio guztietan. Baina urteak daramatzagu mota honetako mobilizazioak bultzatzen, eta ez dugu nahikotzat jotzen. Gauden egoeran, hil ala bizi ari garenean, kompromezu serioa hartzeko momentua dela uste dugu, bestela euskara kontzeptu abstrakto bihurtuko da, hau da, "Euskal Herriko Hizkuntza", "Hizkuntza Nazionala", "Hizkuntza Ofiziala", baina ez gure hizkuntza eta, edo hau lortzen dugu, edo bereak egin du. Eta honetan denok gara partaide, eta Instituzioak zer esan handia dute, baina ez natzaie Instituzioei zuzentzen ari, gure kaleetako jendea baizik.

**KORRIKA 6. euskararen alde egiten den ekintzarik zabalena eta gogorrena.** Apirilaren 14ean, Iruñean hasi eta 23an Donostian bukatuz, 9 egun euren gauekin, 2.100 km., Euskal Herri osoa, bai Hegoaldean zein Iparraldean zeharkatuz, hainbat eta hainbat herritatik, gelditu gabe pasatuz, eta honen inguruan, beste hainbat ekintza burutuz. Eta guzti hau aurrera ateratzeko, pentsa ezazu zenbat

KORRIKA, herritarrei zuzentzen natzaie, beldur bait naiz, martxa honetan, ez ote zaigun KORRIKA euskalduna erreinbindikatzeko garaia helduko.

Has gaitezen gaur bertan, eta 7.a heldzen denerako, ea euskararen alde dirua lortzetik aparte, euskara gehiago entzuten dugun. Animo!, egin dezagun korrika, baina euskaraz.

(\* *Erdu Euskaltegiko Eraketa arduraduna*)

**laburrak**

✓ **Bergarako aurrekontuak onartuta**

HB eta EAko hamar zinegotzien botuak nahikoak izan ziren aurtengo aurrekontuak onartzeko. PNVk, EEk eta PSOEk, zazpi botu guztira, aldiz, ezetza eman zioten aurkeztutako aurrekontuari. Bergarako Udalak urte honetarako 1.104 milioiko aurrekontua dauka (iazkoari buruz, %21eko igoera izan du). Honako hauek ditugu aurtengoaren dirusailik garrantzitsuenak: inbertsio errealak: 368 milioi (osoarekiko %33a); pertsonala: 347 milioi (%31a); ondasunen adkiszioa: 174 milioi (%15,8a); herriko erakunde eta ekintzak subentzionatzeko: 125 milioi (%11a).

✓ **Kotxeen araketak**

Kanpaina hau bukatzeko oraindik bi aste luze falta direnean, dagoeneko bukatu dira txanda eskatzeko txartelak. Bakarrik banaka batzuk izan dute, beraz, dohaineko araketen zerbitzu hau aprobetatzeko aukera. Kontzertatutako tailerren kopurua, bestalde, gehitu egin da: Mecaz gain, orain honako garaje hauetara ere eraman dietzakete interesatuek beraien kotxeak: Mugarri, Txapime, Kanpazar, La Unión, Aitor Automoviles, Garaje Txoko eta Garages Nortera, hain zuzen. Garaje hauetara eramanez gero, esku-lanaren %30eko deskontua izango dute (eta ez konponketarena, joan den asteko alean agertu zen bezala).

✓ **Trikitixa eskola atzeratu egin**

Hil honetan hasteko asmoa bazegoen ere, Iraila arte SUDCeko Trikitixa Eskola ez da funtzionatzen hasiko. Atzerapen honen arrazoiak bi dira: alde batetik, ikastaroari jarraipena eman nahi izatea; eta bestetik, irakasle euskalduna aurkitu beharra. Ikastarorako 50en bat lagun apuntatu dira.

**BENGOA**

**ERAIKUNTZAK  
ETA  
BERRIZTAPENAK**

Arkarazo Auzoa z/g Tfnoa: 79 21 76 Aretxabaleta

**URRATS**

**ANOLKULARITZA**


GARIBAI, 3

Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE

## Dena prest 6. Korrikarako

Aurtengo Korrikak birritan zeharkatuko du Arrasate. Lehenengoa, astearte gabean, 12,45ak inguruan Kanpazarretik pasako da, hemendik Muxibarrera joateko eta, bueltatxo bat herri barrutik eman ondoren, Aramaixoruntz abiatuko da. Asteazkenean bigarren bisita egingo digu: Urbina-Gatzaga-Eskoriatza-Aretxabaleta ibilbidea zeharkatu ondoren, Mecatik sartuko da herrira goizeko 8ak inguruan. Buelta bat herri barrutik eman ondoren, San Prudentziaraino abiatuko dira korrikalariak, hemen txantxikutarrek testigoa hartuko dutelarik. Esan behar da Arrasaten kilometro bakoitzak 25.000 pta. balio duela. Ostiralean hasita, ekintza ugari antolatu dira:



Ekintza ugari Korrikaren inguruan

— Ostiralean, Apirilak 14, 10etan Rock Jaialdia izango da Sebero Altuben. Bertan eskualdeko

hainbat talde euskaldunek joko dute: Hor Konpon; Angiolillo; Kaput

— Larunbatean: 4,30etan Zaldibarren futbol partidua: AED - AEK

— Igandean: goizeko 10,30etan, Txirindulari martxa San Prudentziara. Arratsaldean, trikitalariak, txotxongilo emanaldia eta kuestazioa izango da.

— Asteartean: 2,30etan, Korrika txiki; eta 7etan, umeen jolasak Sebero Plazan eta kalejira izango da. 10etan afarria Eskola Politeknikoan (txartelak salgai daude Hiren 1.200 pezetatan). Gaueko 12,45etan, Korrika Kanpazarretik sartuko da.

— Asteazkenean, azkenik, goizeko 8etan Korrikak berriro zeharkatuko du herria, honako honetan Mecatik sartuko delarik. Pasatu ondoren, AEDko euskal tokian gosariak izango dira.

## Eskola arteko Abesbatzen II. topaketa

Larunbatean, hilak 15, 4,30etan Amaya antzokian Deba Bailarako Eskola arteko Abesbatzen II. topaketa izango da. San Frantzisko Xabier Ikastolak, Udala eta Lankide Aurrezkiaren laguntzaz, antolatu du topaketa. Guztira, 3 urtetik 14 urte bitarteko 299 haurrek hartuko dute parte jaialdian.

— **A mailan** (3-5 urte): Arrasateko "Ume zaintza" Ikastola (56 haur). Zuzendaria: Eskarne Aranoa Talde honek "Igurtzirik bi eskuak" eta "Txaka, Txaka, Txa" abestuko dute.



300 haurrek abestuko dute

— "San Frantzisko Xabier" Ikastola (48 haur). Zuzendaria: M<sup>a</sup>Pilar Fdez. "Mahaian daukazu" eta "Txabi" abestuko dute.

— **B mailan** (7-10 urte): Bergarako "Mariaren Lagundia" (65 haur). Zuzendaria:


Begoña Rekalde. "Ene maitea" eta "Alaitasunaren ereserkia".

— Eskoriatzako "Almen" Ikastola. (40 haur). Zuzendaria: Mary Asun Berezibar. "Negua joan zaigu" eta "Volga Volga".

— Eibarko "Iturburu" Ikastola (40 haur). Zuzendaria: Simone Begiristain. "Oi lagun" eta "Maite nerea".

— **D mailan** (11 - 14 urte). "San Frantzisko Xabier" (50 haur). Zuzendaria: Gurutze Uribarren. "Nik maite nuen" "Xexenak iges".

Ondoren, Aretxabaletako Abesbatzak, ahots nahasietan, Urufela, Sorozabal, Sarriegi eta Salaberriren obrak abestuko ditu Anjel Barandiaranen zuzendaritzapean



## AHIZKE-CIM Koop. E.

ACEIG-FECEko kidea

Cambridge Unibertsitateko PETeko  
Batzorde Antolatzaileko Kidea

Alemana  
Frantsesa  
Ingelesa

Haurrak  
Gazteak  
Helduak  
Enpresak

Maila guztiak  
Azterketarako prestakuntza  
Ohizko ikastaroak eta trinkoak

Loramendi 7, Tfnoa: 79 01 32

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

## A.ZANGITU

Tfnoa: 799182 ARRASATE

Tfnoa: 761954 BERGARA

## berango

Arotzeria orokorra  
sukaldeko altzariak  
kanpo eta barruko atek  
Legarreko pabiloi industrialak  
(Behea) Tfnoa: 79 01 92  
ARRASATE

## “Un futuro para nuestro pasado”

Asteartean, hilak 11, “Un futuro para nuestro pasado” Txepetxen liburua aurkeztu zen. Hitzaldiak publiko asko erakarri zuen, aretoa betez. Dionisio Amundarain hizkuntzaren ikasketa prozesuan eragiten duten faktoreez, hau da, motibazioa, ezagutza eta erabilpenaz mintzo zen. Iñaki Larrañagak hizkuntz funtzioetan zentratu zuen bere azalpena. Honen eritziz, hizkuntzek honako funtzio-maila hauek bete behar dituzte, behetik gora: identifikatzailea, familiarra, profesionala, lokala, nazionala, zibilizazio-funtzioa eta internazionala. Euskara,

gaur egun, funtzio lokaleko mailara heltzen da bakarrik, eta maila hau gainditzen ez duen bitartean, desagertzeko arriskuan dago. Azkenik, Julen Arejolaleibari tokatu zitzaion txanda. Honek, euskara berreskuratzeko eraman behar diren pausoak azaldu zituen. Ekitaldia bidez grabatu zuten. AEDk hitzaldi-zikloan tratatuko diren gaiekin txosten bat prestatu du, hitzaldietara joaten diren guztiei banatzen zaiena.

Ostegunean, hilak 13, Koldo Zuazok Euskalkiez eta euskara ba-




I. Larrañaga, D. Amundarain, P. Azkarate eta J. Arejolaleibaren e-abileraren eremuz mintzatu zen, eta datorren Apirilaren 18an J.A. Irigaraik, J.M. Larreak eta J.C. Etxegoienek zikloari amaiera eman-go diote.

## Fiskalak 41 urteko zigorra eskatu Gatxirentzat

Ostegunetan, hilak 13, Jon Joseba Arejolaleiba “Gatxi” aramaixarraren epaiketa izan da Madrilgo Audientzia Nazionalean. Fiskalak 41 urteko gartzela-zigorra eskatu du. Talde armatuko kidea izateagatik, 7 urte eskatzen diote; “Araba Komando”ren armak zulo batean gordetzeagatik, beste 7; eta beste 27 hilketa bat egiteko beharrezko laguntza emateagatik.

Jon orain dela bi urte t´erditik hona Alcalako gartzelan dago. Berarekin batera, “Araba Komando”ko hiru kide izan dira epaituak; hauetariko biri Luzio Aginagaldere sekuestroaren egileak izatea leporatzen diete.



J. J. Arejolaleiba, “Gatxi”



PNVk gonbidatuta, Luis Herrera Campins, “Internazional demokristiana”ren Idazkari Nagusiak eta Venezuelako Lehendakari Ohiak (1979-84), eta André Louis, idazkari ondokoak, Euskal Herria bisitatu dute. Astelehenean CLP, Fagor eta Ikerlan bisitatu zuten. Bere bisitaz, Campins-ek zera esan zigun: “Venezuelan aldaketa sozial eta politiko garrantzitsuak ematen ari direnean, sustrai sakonak dituen autonomia hau ezagutu nahi izan dut.” Kooperatibei dagokienez, “produktio-era berri bezala, oso esperientzia interesagarri eta arrakastatsua da”.

# LASAGABASTER

# JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena

Garibai, 9 Tfnoa:798997



Drogomenpeketasun mailan lan egiteko Batzorde bat eratu nahi da

## Toxikomanoen senideen bilerak

Jakina denez, drogarena gaur egun gure herrian, besteetan bezala, oso arazo garrantzitsua da. Hau dela eta, badirudi azken bolada honetan arazo honi nolabait aurka egiteko inizatiba batzuk sortzen ari direla. Horra hor, urtearen hasieratik astelehenero Frantziskotarren lokal batean biltzen den drogadiktoen familiakoen taldearena.

Arratsaldeko betan astero droga-zaleen 20bat senide, gehienak amak, biltzen dira. Gehienek heroinarekin problemak dituen familiakide bat dute etxean, beste droga-motekin arazoak dituztenak ere badaudelarik. Alkoholarenak, ordea, ez dute kabida talde honetan.

Bilera hauen helburua zera da,

*"elkarri laguntzen diogu, nola jokatuko arazoaren aurrean ikasteko; taldeko terapiak egiten ditugu. Arazoa ez da ezkutatu behar. Gure semeek engainatu egiten gaituzte dirua eskuratzeko; eta ikasi behar duguna euren nahi dutena egiten ez uztea da eta bultzatu laguntza eska dezaten".*

Udalaren aldetik egiten denari buruz, ez dute kritzi onik, "ez dute ezer egiten, gai honetaz dagoen jakineztasuna osoa da. Arazoa ezagutzen duen jendea behar da".

Bileretara joaten direnen seme-alabarik gehienak kalean dabilta; bost, aldiz, erreabilitazio zentruetan daude: hiru "Proyecto Hombre"-n, bat "Santa Agedan", beste bat "El Patriarcan" eta beste bat Gasteizko Nieveseko Sikiatrikoan. Zentru hauetan sartu ahal izateko, oztupoak jartzen omen dizkiote toxikomanoei, papeleoak ere egin behar direlarik. Alde honetatik, haien eritziz, zentru hauetan sartu ahal izateko, "Proyecto Hombre"-k du prozedurarik errezena. Dena dela, zaila izaten da gazteak zentruetan mantentzea, "ez dira konturatzen arazoaz eta euren burua pizkat seguru ikusten dutenean, ez dira itzultzen edo ihes egiten dute".

Bestalde, esan zigutenez, ezin da esan langabezi arazoak daudenik Arrasateren kasuan, behintzat, gehienak lanean ibilitako jendea bait da. "Txarrena da paroa kobratzen dutenean; dirua poltsikoan, eta zer eginik ez..."

### Batzorde bat sortu nahi

Urtearen hasieratik Udalak kontratatu du Gizarte-Laguntzaile bat drogomenpeketasunerako arazoez arduratzeko. Bere lana, batez ere, Gipuzkoan dauden zentruen informatzea eta, euren asmoen artean, Drogomenpeketasuneko Prebisiorko Batzorde bat sortzearena dago.

Orain beste herri batzuetako (horra hor, Bergara eta Zumarragako kasuak) Batzordeak ezagutzen ari da. Egitasmo honetan jende askok parte hartzea nahi da; horra hor, animatzaile sozio-kulturalak, enplegu-technikaria, udaltzaingoa, gizarte laguntzailea...errepresentazio soziala izango duen batzorde bat sortu nahi da.

Hemendik luzatzen diegu deia batzorde hau sortzeko zerbait aporta dezaketenei. Deitu 79 76 11 telefonora, eta Maria Luisaz galdetu.

Bestalde, Udalak desintoxikazio-zentru batetan sartu nahi dutenei, lagundu egiten die. Horretarako, bere familiari buruzko txosten bat egiten da, laguntzeko baremo batzuk ezarritik.

Gaur egun Arrasaten, arazoari erantzuteko, bakarrik Buru-Osasunerako Zentrua dago. Bertan desintoxikazio fisikoa eta puntuala egiten da, ez da eramaten inolako terapiarik; heldzen diren gaixoak Donostia-ko AGIPADara bialtzen dute.

### ■ Kultur taldeentzako deiladia:

Kulturako Batzordearen bitartez subentzioa eskatu nahi duten Kultur Taldeek Apirilaren zehar 1988an egindako ekintzen txostena aurkeztu beharko dute Udaletxean.

### JAIOTZAK

Morales Valor *Janire*,

Apirilaren 4ean.

Gurasoak: Manuel eta Ana M<sup>a</sup>.

Martín Ayucar *Olaia*,

Apirilaren 5ean.

Gurasoak: Fidel eta Ana M<sup>a</sup>.

Kalboetxeaga Abarrategi *Mireia*,

Apirilaren 6an.

Gurasoak: Javier eta Miren Edume.

## Maiatz

ILEAPAINDEGIA

mixtoa

Elkano, 38 (Musakola)

Tfnoa: 79 58 78

ARRASATE

## MARTINEZ aroztegia

Sukaldetan  
neurri guztietako

altzarlak

Araba Etorbidea, 13

Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

## LARRINGAN

auto gidarien eskola

KLASE TEORIKOA

IRAKASLEAREKIN

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE



Erakusketa arrakastatsua suertatzen ari da Datorren Apirilaren 21 arte izango da zabalik "Orain dela 30.000



Izenburu berarekin argitaratu den liburuxkaren aurkezpenak zera dio, "Arrasaten bertan kokaturiko Lezetxikiko indusketa bukatu eta ia hogeigarren urtean, euskal Paeolitikoa ikertzeko, funtsezko datu berriak eskuratu dizkigu Labeko Kobak".

Roberto Pagaldai eta Miren Dorleta Gaztañaga Martxoaren 3an ezkondu ziren Aretxabaletako Izurieta auzoan.

EPELDE

urte: Labeko Koba" erakusketa. Aztarnategian aurkitutako mineralek, argazkiek eta panel informatiboek osatzen dute erakusketa. Esan behar inizatiba oso arrakastatsua suertatzen ari dela; jende asko bertara hurbiltzen ari delarik.

## izen propioak

Jose Luis Etxebarria, "Porru", 31, Aretxabaletako Izurieta auzokoa, Mondra futbol taldeko lehendakari berria da, Pablo Zubillaga ordezkatzuz. Jose Luis Arrasateko Udaltzainburua da. Dagoeneko, bederlatzi urte egin ditu Udaltzaingoan.

Amaia Oianguren, 5, arrasatearra. Trafiko Zuzendaritzak antolatutako "Bide Segurantzaz Heziketa"ri buruzko Marrazki lehiaketan, Gipuzkoako lehen saria irabazi du. Amaia S Frantzisko Xabier ikastolako ikaslea da, Eskolaurreko azken kurtsoan dabilena.

Jose Mari Otadui, "Txosa", 27, Eibarrek 2. mailan jokatzeko fitxatu duen jokalaririk musakolarra. Mondran lau urte pasatxo jokatu ondoren, Eibarren egona zen denboraldi batez, zorte handirik gabe, antza. Ondoren Zornotzan ibili zen beste lau urtez, Mondrara itzuli arte, non aurtengo denboraldian jadanik 13 gol sartuak bait zituen. "Txosa" txapimen dabil lanean, adiministrari.

Anton Blanco, 38, eibartarra, Martxoaren hasieratik Ola Auto Tailerretako gerente berria. Anton merkatal-perittoa da eta Ekonomi Zientziak ikasten dihardu. Aurretiaz Durangoko Renaulten ere gerentzia lanetan aritu zen.

Leire Etxebarria, 5, S. Frantzisko Xabier ikastolako ikaslea, Eskolaurreko azken urtean. Trafiko Zuzendaritzako aipatu Marrazki lehiaketan, Gipuzkoako 3. saria irabazi zuen.


Jon Gerra, 5, gure gaurko hirugarren artista arrasatearra. Jon ere S. Frantzisko Xabier ikastolako ikaslea izanik, aurrekoen kurtsoa, hain zuzen, akzesi bat irabazi zuen Trafiko Zuzendaritzak eraturitako Marrazki lehiaketan.

Oraingo honetan AEKko Alfabetatze mailako talde bat etorri zitzaigun. Oso kuxkuxeroak ziren, galdera pila bota ziguten eta. Ea zuek ere animatzen zareten eta bisitatxo bat egiten diguzuen.



**HIRE**

Liburu eta oparidenda iturriotz, 4 - Tfnoa 79 14 84



**ERAÑA**  
**AHOLKULARITZA**

OROTARAKO ASEGUURAK

Kontzeziño kalea 4 - behea

Tfnoa: 79 83 95

ARRASATE

# “Mondra” aurrera begira

Arrasateko futbol talde nagusiak aste honetan lehendakari berria hautatuko du. Hautagai bakarra aurkeztu denez, ziurrenik bera izango da hautatua kargu hori betetzeko. Presidente berria izango dena aretxabaletarra dugu, Jose Luis Etxebarria eta Arrasateko Udaltzainburua da. Gaurko honetan gure artean “Mondra” bezala ezagutzen dugun futbol taldearen istorio txikia eta bertako gorabeherak jakin nahi izan ditugu.



Asko izan dira “Mondra” tik pasatu direnak

## “Mondragón Club de Fútbol” elkartearen sorrera

Arrasaten egon zen lehen futbol taldea 1913an sortu zen, herrira joku berri hau kanpotar “beraneante” batzu ekarri ondoren. Udatiar hauek udara Aretxabaleta eta Eskoriatzako bainuetxeetan igarotzen zuten eta herriko enparantzan joku berri hau jolastu. Herriko jendeak, dirudienez, atsegin izan zuten jokua eta lehen aipatu urtean “Club Deportibo Mondragones” sortu. Talde honek hiru urte baino ez zituen iraun, 1916an herrian izan zen greba baten ondorioz, bertako jokalariek askok lan bila kanpora alde egin behar izan bait zuten eta jokalaririk izan ezean, futbol talderik ere ez. Herriak ezagutu zuen lehen futbol zelaia San Andres auzoko Errebueltan kokaturik zegoen.

1922an Club Deportibo Mondra-

gonés berriro agertu zen, baina oraingoan futbolzelaia berriarekin. Futbol zelaia berri hau Maalan kokaturik egon zen. Futbol talde honek 1942 arte etengabe jokatu zuen futboleant, gerra garaian izan ezik, arrazoi nahiko ulergarrien eraginez.

Aurreko taldea desagertu zen

Club Deportibo Mondragones”-eko futbol atalak Klubetik alde egin zuen eta hau izan zen Mondragón Club de Fútbol. Beraz, hau izan zen gaur egungo futbol erakundearen sorrera., bere lehen presidentea José Martínez de Ubago izan zelarik.

## Gaur egungo Klubaren garapena.

Gaur egungo klubak urte onak eta garratzak bizi behar izan ditu 1966tik aurrera. Sortu zen lehen denboraldi hartan hirugarren mailan irautea lortu zuen, baina hurrengo urtetik 1979 arte Regionalean aritu zen jokatzeko. Urte honetarako Klubak futbol ekipu nagusi bat zuen eta beste kategoria batzutan jokatzeko zuten beste futbol talde batzuk. Ekipuak 1979 Regional Preferentera igo ondoren, berpizkunde garai bat izan zuela dirudi eta hala 82-83 tenporadan hirugarren mailara igotzea lortu zuen. Igoera biak gertatu zirenean, ekipuaren entrenatzailea Luis Lopez zen, arrasatearren artean “Bonba” ezizenez ezagutzen duguna. Futbol taldeak hirugarren mailara igo zutenean, herriak harrera handia egin zion, eta herriko enparantzan bildurik zegoen jendetza Udaletxeko balakoitik agertu behar izan zuten taldeko jokalariek. Hau izango zen ziurrenik Arrasateko futbol taldearen unerik pozgarriena. Baina ekipuak momentu latzak ere izan zituen, hala

1979.ean Iñaki Herrero futbol zelaian bertan hil zen.

Hau da ekipuak izan duen momenturik latzena

urte berean “Juventud Deportiva de Mondragón” sortu zen eta talde honek inauguratu zuen Iturripeko futbol zelaia. Hirugarren mailan jokatu zuen urte askotan eta 1955ean Arrasate Club de Fútbol filiala sortu zuen. Talde honek preferentean jokatzeko zuten. 1966an

nola, 1979-80 tenporadan, Iñaki Herrero jokalaria futbol zelaian bertan hil zen. Gaur egun, haren omezez herrian “Memorial Iñaki Herrero”, txapelketa lokalak ditugu.

## Gaur egungo egoera

Mondrak gaur egun zortzirehuen bazkide ditu eta bere egoera ekono-

mikoa nahiko larria dela esan daiteke, pasa den urtetik lau milioiko defizitarekin daudelarik.

Ekipo ugari osatzen du Mondragon Club de Futbol-a, hala nola, emakumeen taldean, Rosi Otadui dugularik entrenatzaile, hemeretzi neskak jokatzen dute; Alebinetan, bai A eta B mailetan 36 mutikok osatzen dute taldeak. Entrenatzaileak A mailakoak Tola eta Egiluz eta B mailakoak Uribealgo eta Baltasar ditugu; Haur mailatan ere, 36 haur ditugu bertan jokatzen, hauek ere bi mailatan banatuak. Kategoria honetako lehen mailako ekipuaren entrenatzaile Gil dugu eta bigarren mailakoak Apraiz eta Bastardo. Gazte mailan 22 jokalaritza aritzen dira bertan eta entrenadore lanetan Arrauz eta Idigoras. Ohorezko ligan klubeko 16 jokalarik hartzen dute parte eta entrenadore gisa Chinarro eta Vitoria aritzen dira. Azkenik ekipo nagusia 20 jokalariz osatua dago eta berauen entrenatzaile Iñaki Zeziaga "Divino" dugu.

Mondraz hitz egiten dugunean, sarritan hirugarren mailan aritzen den ekipua datorkigu gogora, baina beste

## Urte istilutsua

Mondraren aurtengo denboraldia nahiko irregularra suertatzen ari da. Hala ere momentu honetan sailkapenaren zortzigarren pos-

aurkako asko zituela eta horren eraginez kargua utzi egin behar izan zuela ere aipatu izan da. Arriaran bere entrenatzaile postutik kentzeko arazoia jokalariekin zituen arazoak



Normalean publiko ugari urbiltzen da Atxabalpera

tuan dago. Ezin esan postu bikaina denik, baina txarra ere ez da. Hala ere futbol kontuetan Mondrarentzat nahiko urte ona suertatu bada,

izan zen, berauek tratatzeko era zagarria argudiatuz. Beraz, honen ondoren Iñaki Zeziagak hartu zuen taldearen ardura tekniko eta Patxi Yarza presidente izatera pasatu.

Bestalde hilabete honetan Mondra berriro berri bilakatu zaigu Txosak jokalaria Eibarri utzi ondoren. Jokalari hau denboraldi honetarako baino ez dio utzi Mondrak Eibarri, datorren urtean berriro jokalari hau herriko futbol taldera itzuli beharko duelarik. Eibarrek datorren urtean bi jokalariz utziko dizkio Mondrari, eta baliteke aurrean bat uztea, baina honen klubari ez dio ardura, momentu honetan dauden postuan egonda, ez bait dute beste kategoriara igotzeko aukerarik, ezta jaisteko arriskurik.

## Klubaren egoera ekonomikoa nahiko larria da. Lau milioiko "zuloa" dago

talde askok osatzen dute kluba, berauek klubarentzat garrantzitsuak direlarik, klubaren asmoetako bat "futbol de base" deiturikoa bultzatzea bait da. Berauek osatuko dute gerora Klubaren ekipo nagusia eta talde guzti horiek koordinatzeko lanetan, Patxi Agirrezabala aritzen da.

beste arazo ugari izan ditu klubak, eta hala Otsailaren erdialdera bere presidentek kargua utzi zuen eta ordurarte bere entrenatzailea izan zen Juanito Arriaran kargutik kendu zuten. Presidenteak kargua uzteko arazo pertsonalak zituela argudiatu zuen, baina direktibari



**BELUN  
TABERNA**

**Lagunarte bikaina**

Garagartza Auzoa, z/g Tfnoa: 796114

**ITURRIOTZ TABERNA**

**GIRORIK**

**JATORRENA !!**

**Tfnoa: 79 16 04**







# EUSKADIKO LURRALDE-SELEKZIOEN 1go IGERIKETA TXAPELKETA



**Arrasateko Kiroldegian**  
**1989ko Apirilaren 22 eta 23an**  
**ARRASATE**



Maalako Errabala 33, Etxabea. Tfnoa: 79 69 00  
**ARRASATE**



**BISITA ITZAZU GURE SEKZIOAK:**  
**KAMPIG-A**  
**OINETAKOAK**  
**KIROLAK**  
**ASTIA**

**ESKATU KATALOGOAK**



## LORAMENDI KIROLAK



## J. L. Etxebarria "Porru": "Inerziaz aurkeztu naiz Mondrako lehendakaritzara"

Jose Luis Etxebarria "Porru", izatez Aretxabaletarra izan arren, nahiko ezagun bilakatu zaigu herrian. Berau dugu Arrasateko Udal-tzainburua eta aste honetan Mondragon Club de Futbol-eko lehendakari izendatuko dute ziur aski, bera bait da hautagai bakarra.

— Zu izatez Aretxabaletarra izan arren, nahiko pertsona ezaguna zara gure artean, zein da horren arrazoia?

— Ni udaltzain orain bederatzi urte sartu nintzen; nirekin batera beste zazpi gazte sartu ziren eta hurrengo urtean beste zazpi, denak gazteak. Garai hartan nahiko momentu istilotsua suertatu zen lapurreta ugari bait zegoen. Gauza bat dela edo beste bat, beti egoten zen atxiloketaren bat. Nik ez nuen atsegin jendea epailearengana eramatea, gogorra egiten bait zitzaidan eta horri alternatiba bat aurkitu nion. Lapurretan harrapatzen bagenuen norbait, zigor gisa edo herriari egindakoa nolabait ordaintzeko eta egindako okerraz kontura zitezen, herriko kaleak garbitzea eta, horrelako lanak agintzen nizkien eta mutikoak hor aritzen ziren. Gero arazo desberdin batzu sortu zirela, momentu politiko korapilatsuak etab. direla, beti egon naiz palestran, nahiz eta nik protagonismo hori gura ez. Nire postua dela medio, beti egon naiz hor.

— Zuretzat, zein da herriak duen arazorik larriena?

— Drogarena, zalantzarik gabe. Udalak horren aurka zerbait egiten du, aurtien toxikomanoei laguntzeko aurrekontuetan diru partida bat gorde da eta toxikomanoei nolabait laguntzeko komisi-  
**Gaur egun "Mondra" k duen arazorik larriena diruarena da**  
sio bat sortzen ari dira. Gurasoak ere biltzen hasi dira euren artean lanean hasteko. Gaur egun kalean galduta edo erdi galduta dabilzan gazteak, hogeitabitik hogeitabostera bitarteko gazteak dira. Horiek laguntza nahi izango balute ni beti prest nengoke laguntzeko. Beste bide batzu ere badaude, Buru-Osasunerako Zentrua edo "Proiektu hombre" etab. Udala zabalik dago eta horregatik ari gara batzorde hori sortzen.

Dena dela, hurrengo belaunaldia aldatzen ari da, liburutegian ugari egoten dira eta kirola egiten ere ikusten dituzu.

— Drogarenaz gain, beste arazoren bat ikusten al duzu?

— Trafikoarena ere nahiko larria da, Arrasaten urtetik urtera gero eta kotxe gehiago bait da eta aparkalekuak urriak dira. Lurpeko aparkalekuak lehenbaitlehen egitea komeniko litzateke, baina hori politikoen esku dago.

— Dena dela Arrasaten ertzainak egonik zein da zuen lana?

— Arrasaten lana denontzat dago. Arrasateko Udalak eta Udal guztiek beren polizia berezia izan behar dute. Nik bi polizia egon behar direla ikusten dut, oinarrizko polizia eta bestea "berezia". Gu lehenengokoak gara, Udalaren zerbitzuan egon behar dugu, datoak bildu, okupazio eta obra ilegalen berri eman Udalari, ingurugiro lanak egin, etab. Ertzainek ordena publikoa, atestatuak eta horrelako lanak egiteko egon behar lukete.

— Beno, eta Udaltzaingoa alde batetara utzirik, nolatan bururatu zaizu Mondrako lehendakaritzara aurkeztea?

— Duela lau urte futbol zelai berria egin zenean hor inguruan mugitzen hasi nintzen, zerbaitetan lagundu nahi nuelako eta gustora aritu

izan naiz. Eta han lanean aritu izan naizenez, direktiban lagunak egin ditut, beti egon izan bait naiz laguntzeko prest, beraz inerziaz aurkeztu naiz. Dena den, ongi pentsatutako erabakia izan da, familiarekin hitz egin eta azkenean, bada, neure burua aurkeztu dut.

— Aukeratu egiten bazaituzte zein izango da Klub-ean segituko duzun politika?

— Oraingo direktibak mutikoak aurrera ateratzeko politika darama.



J. L. Etxebarria "Porru"

Ni horrekin ados nago, baina azkenean ama ekipu nagusia dugu eta horri ere laguntasun handia eman behar diogu eta ondo zaindu. Nik beti esan ohi dut txakur batek kumak izan eta txakur horri jaten ondo eman ezik, kumak ere gaizki jango dutela. Hori berori gertatzen da futbolekoan, ekipu nagusia ondo zaindu ezean, beste ekipuak galduta gelditzen direla.

— Mondragón Club de Futbol"-ak ba al du arazoren bat?

— Beno "Mondra" k duen arazorik larriena diruarena da. Aurrekontu bat badugu eta aurrekontu hori urtero urtero nola bete da pentsatu behar dena. Kostu guzti hori betetzeko eta aurreko urteetan sortu zaigun zuloa kentzeko bidea zein izan daitekeen pentsatu behar dugu.

— Eta zein izan daiteke diru arazo hori konpontzeko bidea?

— Beno, bazkide, sarrera eta errifekin diru apurren bat lortzen da. Taberna ere hor dugu, baina momentu honetan esponsor indartsu baten beharra dago. Hau nabarmena da eta horren bila gabilta.

— Eta ez al duzu bigarren mailara igotzeko asmorik?

— Beno ilusioa beti egongo da. Arrasatek 26.000 biztanlerekin bigarren mailako futbol talde bat izan dezake, baina horrek kostu handia du. Bigarren mailara igoz gero, kostoak handitu egingo liriateke eta horrez gain, Arrasateko jokalariekin bakarrik ezin daiteke bigarren mailan aritu, kanpotik ekarri beharrean aurkituko ginbateke etab. Beraz, hori ondo pentsatu behar den gauza da.



Pedruskoren plantila osoa

**Pedruskok, 0**  
**Abetxukok, 0**

Igoera fasearen lehen zatia bukatzeko partidu bat bakarrik falta denean, Pedruskok enpatea baino ez zuen lortu Abetxukoren aurka. Honako hau izan zen Aguriondok aurkeztutako jokalarien zerrenda: Txomin; Hierro, Rafa Luengo, Sánchez, Mikel; Benito (Markos), Alfredo, Lázaro (Nando), Alex; Gaizka, eta Javi Luengo. Esan behar, enpatea lortu bazen ere, Txomin atezain beteranoari esker izan zela.

Astebukaera honetan Pedruskok

sailkapenaren liderra den Alavesaren kontra jokatu du. Nahiz eta enpatatu oraingo honetan, San Andreseko taldeak oraindik Hirugarren Dibisiora heltzeko aukera ez du galdu. Pedrusko sailkapenaren hirugarren postuan dago, Alavesak baino 6 puntu gutxiagorekin, eta bigarrena den Abetxukotik bi puntuetara. Lehena zuzenean igoko da, bigarrenak promozionatu egingo duelarik. Zurrumurru batzuen arabera, Alavesak badauka interesa igotzeko; datorren denboraldirako klubaren helburua Alaves eta "Alaves Aficionados" taldeak batzea izan daitekeelarik.


## Euskadiko Igeriketa Txapelketa

Datorren Apirilaren 22 eta 23an Kiroldegian Euskadiko lurralde-selekzioen 1go Igeriketa Txapelketa izango da. Bertan Araba, Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa eta Burdeoseko junior eta absolutu mailetako igerilariak hartuko dute parte. Guztira, 200en bat igelari.

Antolatzaileen esanetan, oso garrantzitsua izan da Federazioa Arrasatez gogoratzea. Kiroldegiko piszinak Gipuzkoako onenatarikoak eta oso azkarrak direla kontutan izanik, errekorrak lortzea espero da.

Txapelketa lau jardunaldietan banatuko da: larunbatean, hilak 22, goizean (10etan hasita, eguerdi arte), eta arratsaldean, 5etatik aurrera; eta igandean, hilak 23, ordutegi berarekin.

Txapelketa honetatik Euskadi ordeztatuko duen selekzioa aterako da.



## BRANKA JATETXEA

Eguneko menua  
eta karta

Zarugalde 1, Tfnoa 79 60 10

## TITARE

LENTZERIA FINA

Olarte kalea, 8  
ARRASATE

## OSTARKU DANTZALEKUA

ZATOZ IGANDEETAKO LOTORA! ASTE HONETAN 10.000PTAKO SARIA

Hezurak astintzeko lekuri aproposena

Uribarri Etorbidea 8

## podiuma

### Juan Carlos Conde, igeriketako entrenatzailea


Juan Carlos Condek, Hezkuntza fisikoan litzenziatuak, aurten hartu du bere gain igeriketa klasikako (aletarik gabekoa, hots) entrenamenduaren ardura. Horrez gain, eskola deportibako (eskolatik kanpo hezkuntza fisikoa osatzeko ematen dena) talde bat ere eramaten du.

Entrenamenduak piszinan eta sikuan egiten dira. Sikuan abiadura, hanken potentzia, muskuloak indartzeko zirkuitoak eta flexibilitatea, batipat, lantzen dira. Gaur egun, igeriketa klasikoko taldean 10en bat igerilari daude, eta Juan Carlosek ikusten duen arazo bat, "ez berriztapenarena da. Daudenak aspalditik daude, eta ez dator jende berri-rik. Bestalde, askotan aldatu dute monitorez, ez da egon batere denbora luzean".

Igeriketa taldean sei ataletan banaturik, 130bat lagun daude. Honako sail hauek daude: uretan hasteko eskola; igeriketa klasikoa; igeriketa aletekin; waterpolo; INE-Fen sartzeko taldea eta helduentzako aktibidadeak. Taldean lan soziala ere egiten dute, "medikuek bidaltzen dizkigute bizkarrean arazoak dituzten umeak, igeriketaren bidez ea sendatzen diren".

Juan Carlosen esanetan, ziklismoa eta footingekin batera, igeriketa kirolik osoenetariko da, "muskulaturako zati handi bat lantzen da, eta ez dago lesiorik. Praktikatzeke poliki oso aproposa da".

Arrasateko kiroleko azpiegituraren gaia ere, nola ez, tratatu genuen; "azpiegitura guztiz zaha-



"Arrasaten kiroleko infrastruktura zeharo zahartuta dago"

rra gelditu da. Kiroldegiko bazkideek ordaintzen dutena ikusirik, ez dute zerbitzu onik jasotzen. Leku guztietan daude gauzak apurtuta, eta instalazio guztiak beteta egoten dira. Diru pila bat gastatu dute pabiloi berrian, Kiroldegia egoera oso txarrean jarraitzen duen bitartean. Kiroldegian ez dago leku apropos bat ere hezkuntza fisikoa irakasteko". AUKEAri buruz ere bere eritzia bota zuen, "ez dakit nola sartzten dituzten klubak, kirola orokorrean eta Udal hezkuntza fisikoa Udal saku beran".

Gizartean ematen ari den kirolaren "boom": bere eritziz, "faktore asko dago horren atzean.. Gaur egun, gorputzaren kultura indarrean dago. Hala ere, konpetitiboa baino gehiago potentziatu behar da kirola aisialdi bezala".

Solasa amaitzeko, astebukaerako txapelketa, nola ez, aipatu genion, "inportantea da Federazioak gutaz gogoratzea, Arrasatekoak oso piszina onak bait dira. Ea momentu honetan nahiko baju dagoen klubaren moralak berpizten den".

### Gimnasia ikastaroa

AUKEAek gimnasia ikastaro bat antolatzeko asmoa du. Klaseak, astelehen, astearte eta ostegunero, eta 7,45tik 8,30etara, Santi Gilek eman- go ditu. Prezioa hileroko 1.500 pta.koa izango da. Informazioa: Kiroldegian

### Rugby: Sebas, selekzioarekin

Sebas Gorosabel gazteak bost partidu jokatu ditu, aurrelari bezala, Espainiako gazte mailako selekzioarekin Frantziako torneo batean. Bostetatik, hirutan lortu zen garaipena. Jokatu baino lehenago, jokalaririk Zarutzen konzentratuta egon ziren.

### Saskibaloia: Raul Moreno, onena

Raul Moreno, 13 urteko arrasatearra, infantil mailako Espainiako txapelketetan jokalaririk onenatzat jo dute antolatzaileek. Raulek normalean pibote bezala jokatzen badu ere, Euskadiko Selektzioan base- eskolta bezala ibili zen.

## KIROLAGENDA

- **futbola:** larunbatean: 2.infantila, 11etan: Arrasate-Amara Berri; 2. gazte-mailakoa, 5etan: Arrasate-Bergara; Igandean: 2. infantil, 11etan: Arrasate-Amara Berri. 3. Dibisioa, 5etan: Mondragon-Anaitasuna.
- **eskubaloia:** larunbatean. emakumezkoen gazte-maila, 4etan: Arrasate Kirolak-C.D. Hernani; gazte-maila, 5etan: Arrasate Kirolak-Bergara; 2. Dibisioa, 6,30etan: Arrasate Kirolak-SCR Bidebieta.
- **rallyea:** Gorrara IV. Igoera.. Igandean, 11,45etan lehen manga; 13,00etan 2. manga.

### Denborapasen soluzioak


#### Euskal Herria ezagutuz

Baiona, Kanbo, Angelu, Senpere, Getaria.



**HILBEHERA**  
Kafetegia

Uribarri etorbidea  
ARRASATE



**Zubizarreta**  
**Tailerrak**



Gipuzkoa Etorbidea 22,  
Tfnoa 79 15 65

## Lacadena eta Txillida, azken erakusketak Arrasaten



Bi erakusketa izan dira azken bi hilabeteotan "galeria 44" aretoan: Joseba Lacadena oriotarrarena bata eta Juan Txillidarena bestea.

Lehenak 18 margo erakutsi zizkigun, bere esanetan abstrakzioaren

eta informaltasunaren ikuspegitik begiratu beharrekoak, baina oso koloretsuak, bere lana apainketara zuzendua ez ote duen pentsarazten duena, protesta izpiritu batez sortua baino ( informalisten ezaugarririk

nabarmenena, alegia )

Lacadenak plastikotasunera jotzen badu, Txillidak konpromezu handiago hartzen du gaia mamitzekoan: ekologiarekiko konpromezu ia militantea. 13 obra ekarri zizkigun, paisajistikoak gehienak, non egurts lanbrotsuak eta zuhaitz erriak, hilak, ageri ziren, naturak gizonarengandik jasotzen duen esplotakuntzaren adierazgarri. Txillidak bere kasa ikasi zuen, bere lehen lanek agertzen zuten estiloa errealismo fantastikoaren baitan sailka zitekeelarik.

Azken partean, ordea, akzioko pinturari hurbildu zaio ehunen testurak gehiago zaindu eta landuz, margo kopuru handia itsasten bait die gainean, hala nola koipeak eta beste pigmento batzu.

Akzioko bi pintura mota, beraz, Zubizarretak aurkeztu dizkigunak, baina, ezberdinekoak oinarri eta xede ezberdinekoak

Mikel Arregi

**SEAT** Udalaitz, S. A.



**GARANTIAK  
SENDOENA!**

Tailerra: Musakola Auzoa, z/g

Erakusketa: Zarugalde, 35 behea

Tfnoak: 79 21 25 - 79 18 80

**ARRASATE**

**JOSE MARIA ARZAMENDI Doktorea**

*Kirurgia orokor eta liseri-aparatukoa  
Kontsulta astelen eta ostegunetan,  
5,30tan hasita aurrez ordua eskaturik.  
Igualatorioamedikukirurgikoa  
Lagun Aro eta beste aseguroak*

Biteri Etorbidea, 2 - 11 Tfnoa: 79 21 73 ARRASATE


**“ PAL ”**

burdindegia, brikolage  
eta

tresneria

Uribarri etorbidea, 3

Tfnoa 79 31 99



**ZENBAKI**

Gaiak: Kontabilitatea  
Fiskalitatea  
Lana  
Zuzenbidea  
Juridikoa  
Finantzaketa  
Aseguruak

BASABE INDUSTRIALDEA  
ARETXABALETA (Gipuzkoa)  
Tfnoa: 79 88 75  
79 75 99

## Errepideetako kalbarioaz



Igaro berria den Aste Santutan, auto-istripuz hildakoen kopurua beldurgarria izan da, berriro ere. Eta istripu horien arrazoiak ematerakoan, berriro ere, betikoak eman dira, hau da, gehiegizko abiadura, gidarien okerrak eta autoen hutsegiteak. Guztiak, bistan denez, gidariari dagozkionak.

Baina badago, nire ustez, bestelako kausa sakonagorik. Denon oporrak batera izatea eta denok batera leku beretsuetara joateko joera gregarioa; edo gidari-karneta lortzeko

behar den maila apala, ibiliaren poderioz.

Gaurkoan, ordea, auto-istripuen kausen artean oso nabaria den bat aipatu nahi dut: errepideen egoera.

Gipuzkoako eta Euskal Herriko errepideen azpiegitura penagarria da. Frankismoa-

ren garaian arlo honetan -ere- defizit izugarria sortu zela egia handia izaki, ondorengo urteetan ezer gutxi egin da egoera hura konpontzeko. Eta ez ditut ahazten egin diren saihebidetako koxkorak edo autobide muturrak, baina hutsaren hurrena da.

Eta errepideek ia lehengoan badi-raute, trafikoa berriz ikaragarri gehitu da azken hamarkadetan. Gaur egun, nekez egin daiteke kilometro bakar bat edozein errepidetan. Eta, aurreratu ezinean, berehala sortuko da lerro luzea. Eta, lerro luzean,

laster azalduko dira urduritasuna, presa eta zalapartak. Eta horien eskutik... istripuaren itzal beltza.

Autoen inguruan egin den muntaia sekulakoa da. Autoa guztiz beharrezko bilakatu zaigu, eta handia, indartsua eta garestia behar dugu. Beste garraiabidetan ibiltzea ahaztu egin zaigu edo kendu egin dizkigute. Autoaren industriak, sekulako inbertsioak egin behar ditu modelo berri bakoitza ateratzen duenean. Baina muntaia guzti hau arriskutan dago. Laster, ez gara autozaleok errepideetan kabituko eta orduan akabo urrezko arraultzeak eta akabo oiloa.

Hor dabilta, bai, komunikabideetan Y grekoaren proiektua, Donostia-Beasain autobidea, Leizarango autobia istilutsua, Beasain-Durango "korredorea" etab.... Arrasateko saihebidetako amaitezina. Bitez guztiak ongi etorriak, datozenen.

Mikel Itxausti



**P-405 DIESEL eta  
TURBO-DIESEL  
INTERCOOLER BERRIA**

Arrasate, Gipuzkoa Etorbidea z/g  
Tfnoa: 79 94 11  
Bergara, Torrekua 2, Tfnoa: 76 23 75

## Parques y Jardines S. A.

**PARKE ETA LORATEGIEN SORKUNTZA  
LORAZANTZAKO MANTENIMENDUA ORO HAR  
LANDARE - BIRSORKUNTZA HIDROEREINTZAZ**

Casa - Torre kalea - Tfnoa ( 94 ) 6819082 ABADIÑO ( BIZKAIA )

# Haurrekin jolastu, Zergatik?

Guztiok ezagutzen dugu jolasaren garrantzia haurren garapenerako, jolasa bizitzaren oinarria da, haur txikiak egiten dituzten ekintza gehienek jolas kutsua dute. Jolasa da haurrak espresatzeko duen lehenengo bidea. Jolasa helduentzat denborapasa da; haurrentzat, ostera, garapenerako duen bidea da jolasa.

Horregatik haurrekin jolas egitearen garrantzia azpimarratu nahi dugu, baita haurrekin jolasterakoan kontutan eduki behar ditugun zenbait gauza ere.

### Haurrekin jolastu bai, baina...

**Ez.** Guk, helduok, beraiek baino hobeto jolasten dugula demostratzeko.

Ez eta gu trebeagoak ala indartsuagoak garela adierazteko ere.

**Bai.** Haurrek jolasen bidez egiten dituzten aurrerapenak konpar-

titzeko.

Hau eginez, jolasean parte hartuz, beraiek jolasteko duten interesa piztuko dugu, eta beraiek bakarrik jolasteko duten gogoia ere suspertuko dugu.

### Zein jolas?

Zuen gogoia pizteko, beharbada ahaztuta dituzuen zenbait jolas gogora ekartzeko, hona hemen haurrekin erabiltzeko moduko jolas batzuk.

### Jolas tradizionalak

Belaunaldiz belaunaldi iritsi zaizkigunak dira. Etxeetan aitona-amonekin, gurasoekin jolastuz ikasi genituen jolas hauek, baita kalean jolastuz ere.

Gaur egun jolas hauen transmisioa arriskuan dago, horregatik azpimarratu nahi dugu berauen garrantzia.

Jolas hauen bidez hizkuntza eta kultura transmititzen da, baita irudimena eta sormena bultzatu ere; eta badute abantaila handia: jolaselementu gutxi behar izatea.

Hona hemen jolas batzuk:

- Ikusi-makusi
- Itsu-itsuka
- Maria Goikoa
- Txorro-morroka
- Musuzapia atzetik


Jolas hauek ezagutzen ez badituzu, hona hemen baliagarria gertatuko zaizun liburu bat:

Xabier Etxaniz *"Haur folklorea-ren bilduma"* Pamiela Iruñea 1986.

Hurrengo aleetan gai honetaz beste informazio batzuk aurkituko dituzu, arlo ezberdinak garatzeko baliagarriak diren jolasen adibideak, hain zuzen.

*Klarion taldea*

**PRONOVIAS DOCHY**



**ezkontzak**

Independencia 20  
GASTEIZ

**Eroski Kontsumatzaileen Komitea**

**Informazioa eta Formazioa.**

**Gure bulegoa: Uribe Auzoko Eroski dendan**

**Impi gozoak**

Gosariak eta gozokiak

Zarugalde, 8  
Tfnoa: 79 63 34

**TXOKO TABERNA**

Gure berezitasunak  
pintxo eta mokau  
gozoak

**itesa**

- \* Pisu eta lokalak
- \* Orube eta lursailak
- \* Balorapenak

Gure aholkularitza,  
gestio eta  
salmenta-zerbitzuak  
eskaintzen  
dizkizugu

Maalako errebala, 6. 1

**Agirre Miota Gestoria**

Zerga deklarazioak

Erdiko kale 28, 2.  
Tfnoa: 79 34 33

**Memesa**

**Arrasate**

79 42 22

## Gure Osasuna

Erakunde ofizialek, gobernuak eta administrazioak populazioaren osasun-adierazgarri bezala sendagileen kopurua, anbulategiak, mediku zerbitzuak erabiltzen dituzte; zenbat eta sendagile, eritetxe, ohe... gehiago, osasuna nolabait hobea omen da, gizakumeek harrera hobea izango dutela pentsatzen delako. Baina estatistikek besterik diote. Egia da gero eta teknologia aurreratuagoa erabiltzen dela, aparatu sofisticatuak diagnostikoak egiteko eta tratamenduetarako, osasun-gastua haundituz doala ezin ukatu, Barmeproduktu Gordinaren %8ra heldu arte; baina osasunak, benetako osasunak, ez du aurrerapen adierazgarri ikusi. Bizi-itxararopenak aspalditik ez du aurrerakuntzarik egin,

gero eta gaixo kroniko eta elbarri gehiago dugu.

Aparailu, sendagile eta erizainez beteriko eraikuntzei osasun-zentru edo oinarrizko osasun-unitate izena ematea eufemismo bat besterik ez da, bertan gaixorik daudenez baka-rik arduratzen bait dira eta benetako osasuna baztertua uzten da.

Milioi asko eta asko publizitatean gastatzen dira, baina dakigunez, oso gutxi, ia-ia sinibolikoak dira osasun-promoziorako erabiltzen direnak. Eskola-osasunaren programa edo egitasmoa utopia besterik ez da eta horrela jarraituko duela dirudi.


Hor dagoela eta zeozer egiten dela esateko, noizean behin ikasleei miaketa mediko bat egiten zaie eta hor bukatzen zaigu dena.

Dakigunez, gure bizi guztian zehar beharrezkoa dugun gai garrantzitsuena, hau da, osasuna, epe labur edo ertainera ez dago irakaste-ko asmorik eta beharrezkoa dela iruditzen zaigu.

Ez dugu ahaztu behar gainera, gaztea zeranean irakatsi behar dela, mundu horietan ibiltzeko beste hainbat gai irakasten diren bezala. Pertsona nagusien ohiturak aldatzea ez da gauza erraza; garestia da eta emaitzak ez dira seguruak gainera.

Ez ote da errezagoa, merkeagoa eta hobea, epe luzera begiratu haurtzaroan eta gaztaroan finkatzea ohitura onak?

*Eukeni Olabarrieta  
Arantxa Lizaso*



# MERKATAL ZENTRUA

Paz, Postas eta Independencia kalea Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ



**Almacen del Mueble  
Mondragon**  
Prezio paregabeak  
Zatozte


Gipuzkoa Etorbidea. 6 Lehena behea Legarre

**Gorka**

**ILEAPAINDEGI  
MIXTOA**



Bainetxe kalea, 10-behea. Tfnoak: 799680 eta 796327  
ARETXABAETA



**FAMILI  
ETA GIZARTE-  
HEZIKETARAKO  
ZENTRUAK**

\*LARRU-LANKETA eta MAK-  
RAME IKASTAROA

(20 ordu, ostegunetan, 6,30etan)

\*ESTAINU-LANKETA ETA  
TARAZEAK

(20 ordu, ostegunetan, 3,30etan)

\*GOZOGINTZA

20 ordu, 6,30etan, astelehena  
asteazkena

Hautzaindegia zerbitzua  
Sta. Teresa 12, Tfnoa: 79 04 59

BIZKAI JATETXEA


**BIZKAI jatetxea ireki berria!**

Udala Auzoa  
ARRASATE Tfnoa: 79 22 15

**MIREN**

**APAINDEGIA**

Zarugalde 23, 2. Ezk.  
Tfnoa : 79 96 90 ARRASATE



**IV. GORLARA IGOERA**

**Kritik SARI NAGUSIA**

Apirila 16 Igandea Orduak: 10,30 Entrenamendua 11,45 1go Manga, 13,00 2. Manga



**ETXEBIZITZAK**

- **Garagea salgai** Erdialdean. Tfnoa: 791923
- 60m<sup>2</sup>ko merkataritzarako lokala salgai. Tfnoa: 797480
- **Arrasaten Mertzeria bat esku aldatzen da.** Prezioa interesgarria da. Edozein negozio egiteko. Tfnoa: 796578-797916.
- **Mutil eta neska! gelarik libre edo banatzeko baduzu, ondo etorriko litzaidake.** Ez dut trabarik egiten. Lanean ari naiz eta egoteko tokia behar dut. Deitu 795289 tfnora. Aste bukaeretan: (94) 6849053.
- **Alokatzeko pisu bila gabiltza** Arrasaten 3 pertsona. Interesatuak dei: 795431 Tfnoa. (gaueko 8etatik aurrera)
- **Donostia: konpartitutako pisuan gela edo pisua alokatzeko neska bila nabil.** Tfnoa: 796287
- **Pisua konpartitzeko pisua behar da.** Dei 796982 Tfnoara gautan.
- **Bikote batek, lehenbaitlehen pisu bat errentan hartu nahi du.** Tfnoa: 79 70 29. Iñaki
- **Aretxabaletan zapatadenda bat errentan eman nahi da.** Tfnoa: 790214
- **Ikasleak alokatzeko pisu bila.** Tfnoa 551443.
- **Pisua salgai** erdialdean. Tfnoa: 790773
- **Neska edo mutila behar da pisua konpartitzeko.** Tfnoa: 795461 (eguerdiko 12etatik arratsaldeko 2etara eta gaueko 9etatik aurrera)
- **Erdialdean pisua salgai,** Banco Bilbao, 115m<sup>2</sup>ko etxebizitza, garage individuala eta ganbara. Tfnoa: 795111
- **Etxebizitza salgai** Bergaran. Tfnoak 763855-764453
- **Lehenbaitlehen pisu bat errentan hartu nahi dugu** Arrasaten, merkea bada hobe. Tfnoa: 790900. Lorea.

- **Paper-jostailu denda esku aldatu nahi da** Uribe Auzoan. Interesatuak dei 79 47 85 telefonora.
- **Culleran (Valencia) pisua errentan eman nahi da** urte osoan zehar. Tfnoa: 79 71 94.
- **Bergaran etxebizitza salgai** Zubieta kalean. Dei egin telefono hauetara :763855 (orduak: 13,00-15,00 edo 20,00-23,00) eta 764453
- **Etxebizitza salgai** Aretxabaletan. Tfnoa: 795233

**LANA**

- **20 urteko neska batek umeak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke.** Tfnoa: 797992. Informeeekin eta erantzulea.
- **Emakume euskaldun batek etxeko lanak edo umeak zainduko lituzke.** Tfnoa: 790773
- **Eraikuntza irakaslea behar dugu.** Interesatuak dei 797938 telefonora.
- **Lan Kide Aurrezkia** (Euskadiko kutxa) Zurgintzarako makineria alorreko enpresa lider batek, behar du: Pertsonal zuzendaria.
- **Emakume bat behar dugu,** etxeko lanak egin eta 7-12 urteko haurrekin arduratzeko, ahal balitz euskalduna. Interesatuak dei 795150 telefonora, arratsaldeko 7,30tik 9,30etara.
- **Neska edo mutila behar da gozotegi batean, arratsaldetan lan egiteko,** larunbat eta igandeetan ere bai. Tfnoa: 79 64 50
- **Emakumea behar da hilabete gutxiko umea zaindu eta etxeko lanak egiteko,** ahal balitz euskalduna, berehala hasi eta bi urtetarako luzatu daitekeelarik. Interesatuak dei 79 66 38 telefonora. 6,30etatik 7etara.

- **Emakume batek etxeko lanak egingo lituzke:** 794020
- **Neska gazte batek lan egingo luke** Udan: Interesatuak dei 798628 tfnora.
- **Neska edo andra euskaldun bat behar dugu** haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interesatuak dei 796450 telefonora.

**SALEROSKETAK**

- **Talbot-Samba SS-P salgai.** Tfnoa: 782499 eta 782704 (bulego-ordutan)
- **SS-2601-T matrikula duen R-11 salgai.** Helbidea: Etxostea 18, 3 ezk. Tfnoak: etxean 796751 eta lantokian 794700. Gerardo galdetu.
- **Ia berri dagoen bi ohe tolesgarritzko armairua salgai.** Prezioa elkarren artean jartzeko. Interesatuak dei 797891 telefonora (3etatik aurrera)
- **Salgai: \* logela, bi ohe, gaumahaia eta gorputz bikoitzeko armairua.**  
\* Logela, apainmahai eta gaumahaiaekin.  
\* Sukaldeko mahaia, aulki eta aulkikoekin. Interesatuak dei 793966 telefonora
- **R-6a erosi nahi dut.** Dei ezazue bulego ordutan 79 71 64 Tfnoa. Goio
- **10 abiadura eta 54 neurritzko "Corbeta" bizikleta salgai** dago. Tfnoa: 79 58 29

**DENETARIK**

- **Egunero Gasteizera joanetorria egiteko kotxea behar dut.** Gasolina gastoak erdibana. Dei eguerdian 79 35 47 telefonora. Asun.

†  
**ARRASATEN HILDAKOAK**

M<sup>a</sup> Zulueta Belastegi,  
99 urte Apirilaren 4ean

José M<sup>a</sup> Fernández González,  
55 urte Apirilaren 5ean

Basilio Zubia Larrea,  
78 urte Apirilaren 6an

José Luis Cecilio Moreno Elozegi,  
75 urte Apirilaren 6an

Tadeo Azkarate Murgoitio,  
72 urte Apirilaren 10ean

Gabriel Solana Leo, 78 urte  
Apirilaren 10ean

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK  
DEBALDEKOAK DIRA TESTUA IDATZI ETA  
BIDALI GURE BULEGOETARA**

**TESTUA:**.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

Zaharkale estalla 1,1b 20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64

## Famauen ahotik



...karakol erdixek zisko ein justan...

**Esteban Etxabe: "Ardaue oso mimosue dok"**

### GARIXEN KONTRAKO ERREMEIXUE

*"Urdei-galluaz kurtzie eñ garixe dauen lekuen eta gero urdei-gallue ondo gorde (Hortxe jak sekretue) Normalien hillebetien dana garbi"*

Esteban Etxabe

### Muxibarreko ardauden kontuek

Guk 80 bat litro salduko gittuan egunien. Mansoi hartzen gutzan. Egun baten Manso anai nausixena etorri jatan: "Esteban, zu akreditau-te zauz ta lagundu ein bier duskuzu klientela barrixe eitten". Nik: "Bueno, konforme". Juen gitzuan Gauxorire ta "heurie morukue ekarriko jok?" "Bai..." "Ba, bixertik ekarri daixela orduen". Leku guztietan esan juzkuen erueteko.

Tabernaik gehixenetan ardaue iguela bañe halatabe jentiek: "Ardaue ona bai, bañe zurie morukoik eztau bestietan, Esteban".

Orduen esan justan Mansok: "Guk danoi ardaue iguela zerbiruten dutzau bañe Gipuzkue osuen geuk pe eztaukou ardaue zure moruen tratetan dauenik".

Ardaue oso mimosue dok eta zaindu ein bier jok!

### Antxoak, txitxerruek, eta... karakolak

Guk antxoak, txitxerruek, bakallae,... kiluek eta kiluek saltzen gittuan. Txorixuek pe astero barrixek ein bier. Karakolak Domunsantuetan milletik gora salduko gittuan. Jentie etxietatik eske kazuelatxuekin. Andrie ta bixok mille pasau

batute gazak egun baten.

Behin pasau jatan ederra. Mordo bat naukan garbiketako ta batek esan justan: "sartik labadoran, hantxe garbittuko dittuk onduen". Sartu nittuan ta, orduko labadorak holako beso moduko bat jaukien erropiei buelta emoteko eta besuorrek karakol erdixek zisko ein justan.

### Garixek kentzen be bai...

Lehenengue "Arbe" aguazillen arrebie izen zuan. Berak: "Halako lelokeixetan etxuak sifisketan!" Eskue, gariz beteta aukena, garbigarbi geratu jakuan.

Zentroko merikuek pe egunero tabernan adarra joten eta egun baten Saezek, konzejala izendakuek: "Ezauketan dot Bilbon andra bat eta hari kentzen badutzezu danondako txuletak neuk pagauko dittut". Etorten dok emakumioi, egundoko rubixa flamenka bat... bañe ze zuan ha! Esku danak betebete eindre. Ein biherrekuok ein eta juen zuan. Laster zuan bueltan "Montekristo" kajiaz, danak kendu jakola ta pozik.

Harrazkero bielketan juztek jentie Bilbotik. Hola asko eta asko Estepan Plazaola eta Jesus Mari Garai

## Zelebrequerixak

Hamen e emakumiei pasu leikien gauzia kontatzera noia:

Neska batek amai esate i otsan, "ama" eta "ze?" ta...

— Ba, problema bat daukat.

— Ze pasatze jatsu ba?

— Jo, esatia be, eztakitt gauzia ona, kanzerra ero ze ete dan hau e.

— Ze pasatzen jatsu, ba?

— Lau txorrotan txixa eitten dot.

— Bueno neska, holakoik ezizu esan behintzet. Lau txorrotan?

— Bai, bai, lau txorrotan.

— Aber, goazen.

Tarrrrraaaa, hankak zabaldu, ta jarri da, ta, lau txorrotan txarrraaaa, ta:

— Mekauen ba, hau ezta gauzona, kaso patalogikua da hau.

Eruan dabe Mondrauera sinekologuana, ta ra, sartu da neskia gorri gorri eindra lotsatuta, ta:

— Lau txorrotan txixa eitten dau.

— Lau txorrotan? holakoik ezto-gu behintzet sekula entzun. Ia aber aprobau.

Tarraaaa. Ta lau txorrotan, hola-xe. Ta esan jao medikukak e:

— Ba nik eztait, nik eztait.

Onena e, bihar Eibarrea joan eta plakak etara.

Joan da, da esan jao medikuai e..., papelian zeukan da esan biharrik pez. Emon jao. Plaka batzuk etaratzeko ta. etara jao plakok eta, hurrengo egunian Mondrauera, sinekologuana berriz. Da medikuak e argittan ipiñi dau plakioi da hasi da begira ta.

— Ooh, trankil trankil, ezta ezer, bragetazo bat, botoia dauka barruan.

Asier Agirrebeña (Bergara)


Juan Martin Elexpuru



**URONDO elektrizitatea.**

Nafarroa etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- \* Elektrogaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak
- \* Proiektuak



**JESUS ELKORO**

BIDEO - KLUBA

Tfnoa: 791886

ARRASATE



*Garagartzako eliza*

**Z**aharra da Garagartza auzoko San Migel parrokia. Jatorrizko eliza XIV. mendearen aurretik eraiki zela salatzen digu tankera erromanikoko atariak. Geroztik erantsitakoetatik XVI. mendeko erretaula platereskoa nabarmentzen da;

orain albo batean egon arren, aldare nagusian ere kokatu omen zen Errenazimendu garaiko erretaula bikain hori. Auzoari nortasun berezia ezartzen dion kanpandorre lirain hau, berriz, beranduagokoa dugu. (I. Ojangurenen argazkia) ■

—Fotozahar sariketa—

Urtearen zein egunetan ospatzen dira Garagartzako jaiak?

—Joan zen asteko irabazlea—  
Loli Uribarren, arrasatearra

“Moises” euskarazko bodeofilmea -VIGURI Bideo Klubak emana- irabazi nahi baduzu, aste honetan bertan postala bidali gure helbidera, erantzuna emanez eta zure adina adieraziz:  
**Zeharkale estalia 1,1.b Arrasate**



...eta gainera

**VIGURIk**

hilaren bukaeran

14''ko koloretako

**ITT** markako TELEBISTA BAT zozkatuko du hileko parte hartzaile guztien artean

Iturriotz 33 eta Zerkaosteta 24. Arrasate

YAMAHA sonora PANASONIK CEC MUSIMA  
 KEF Harman/Kardon ONKYO Vegas  
 QUAD Clener CASIO EGI  
 Mission baile Goodmans BASF NAKAMICHI  
 HONNER Polytone Televes Ortela  
 Zimmerman Fox LARK Rotel  
 Fujitsu ERESI  
 Cyrus JBL PIONEER PHILIPS MORESCIII  
 JAMO KELLER Ortofon JUGGS  
 TEAC Torque Admira  
 carol Alpine Estrella KONIKA UHER  
 Hantarex Tensai MELOS SHINTON  
 Fonestar Otalora kalea Tfnoa 79 29 09



**KILI-KOLO**  
 Ferrerías 21  
 Tfnoa. 797006  
 ARRASATE


**UDALA**  
 Auto-eskola  
 Minusbaliatuentzako  
 klase bereziak  
 Otalora, 25 Tfnoa: 79 88 56

**Iosu**  
 argazki denda  
 \* ARGAZKILARITZARAKO MATERIALA  
 \*ERREPORTAIK  
 \*BISUTERIA  
 Olarte kalea 11, Tfnoa: 79 82 60

*Goiztiri*  
*Opariak*  
 Maalako Errebala, 11  
 Tfnoa 79 87 43

**AUTO-ALDAGAILUAK**  
**ARRASATE**  
 kotxerako aldagailu eta akzesorioak  
 Tfnoa: 79 61 11 Udala Enparantza (Izarra dorrea)

**OSORIK**  
 pub  
 Ignazio Zuloaga

**Onduline**  
  
**HERIZ**  
 eraikuntzarako materialak  
 Biltegia: Bidekruzeta 1 Tfnoa: 79 23 18ARRASATE

**URIBE-ETXEBARRIA**  
**AROZTEGIA**  
 Obra-eraikuntza  
 Aroztegi mekanikoa  
 Araba Etorbidea z/g Tfnoa: 79 15 71

**Bazar**  
 TOKI ON  
**Elektronika artikuluen salmenta**  
 J.Carlos Guerra 1, Tfnoa 79 91 64

**ARRASATE**  
**PRESS**  
 astero zuekin

**B**izi naizen kalean  
ez ohi da aparkelekurik  
ordu jakin batetik aurrera.

(Arratsean, arkupetan kaletxoriak bezalaxe,  
kotxeak beren ibilaldiak kontatzeko biltzen dira.)

Lehenago helduz gero  
isildu egiten da nirea,  
goiz ailegatzeak ez bait dio  
harro agertzeko arrazoirik ematen.

(Iziotu berri den argi elektrikoaren zurrunbiloak  
estali egiten du beraren lotsa isila.)

Beranduago heltzen bada  
bira triunfala eman leku bila  
eta kotxe arrotzen artean  
lokartzen da, hitz puztuak  
ahaztuta.

(kaletxoriek ez dizkiote sekula ere  
hegalpeko lumak elkarri erakusten.)

*Gerardo Markuleta*



**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa - t/797658 Arrasate

**empresa  
bazkariak  
eta  
famili bilerak**

■ **Ibon Sarasolaren doinua:** Interesgarria benetan Ostiral Santuz Euskadi Irratiak "Iturri Onetik" saioan eman zuen hitzaldia. Joan den Urtarrilean Ibon Sarasolak euskaltzain berriak Akademian sartzeko egindakoa, hain zuzen. Interesgarri bezain jakingarria, esan bezala. Baina benetan harritu ninduena haren hitzen soinua izan zen, azentua. Nondik arraio atera ditu Sarasola donostiarrak doinu horiek? Haren hitzak harrikadak bezala lehertzen ziren nire belarrietan, zeharo arrotzak egiten zitzaizkidalarik.

Ez da, ez, hori gertatu zaidan lehen aldia. Oraindik garbi gogoratzen dut Deustuko Unibertsitatean hil baino apur bat lehenxeago Gabriel Arestiri entzun nionean. Zein arrotz egiten zuen berba, beranduago irakurriko nuen poetak!

Batak zein besteak egin dute beren tokia euskal letren munduan, baina ez dut uste euskal fonetikaren eredu izango direnik.

Hala ere, biziki gomendatzen dizuet Ibon Sarasolak Euskaltzaindian egin zuen sarrera-hitzaldia. Mamitsua izateaz gain, emango du zere-sanik.

■ **Itzulera operazioa Euskadi Irratian:** Aberri Eguna biharamonean, Aste Santutako oporretatik bueltan, Iruñea heldu eta danba! sekulako berebil iladan sartu ginen. Ia ordubete behar izan genuen Iruñea zeharkatzeko. Errepideen egoeraz zerbait jakin nahian Euskadi Irratia piztu eta country musika atsegin ugari, baina itzulera operazioaz ia hitz erdirik ere ez. Erdal irratieta, bien bitartean, jo ta ke informazio hori eskainiz.

■ **Korrika:** Aurtengo Korrika eztabaidatuaz hitz egiteko asmoz, Mariano Ferrerek Xabier Alkorta, Luis Mari Bandres, Joxe Agustin Arrieta eta Esthe Larrañaga elkartu zituen "A mi que me cuentas" Herri Irratiko irratsaioan. Eztabaida bizia eta garratza izan zen, interesgarria edozein modutan ere. Zerbait azpimarratzekotan, moderatzaileak erdaraz hitz egiten zuen bitartean, gonbidatuak euskara hutsan mintzatu zirela.

*Joxe Aranzabal*




## gusto baduzu

■ **Euskadi bost hitzetan,** ez, ez da programa berri bat, ETBk antolatutako sariketa baizik. Bere helburua Euskadiren nortasuna adierazten duen euskaraz eta gaztele-razko esaldi bana lortzea da. Euskarazkoa ETB, 3289 Postakutxara bidali behar da, Maiatzaren 12a baino lehenago. Epaimahaiaren erabakia Maiatzaren 15eko "Laino guztien azpitik" saioan jakineraziko da.

■ **Kresaletan,** 8. atala. Igandean, hilak 16an, 20,00etan. "Makailuontziak". ETBrentzat produzituriko saio dokumental berri honen 30 minututako 13 kapituetan zehar, Euskal Herriko arrantzale munduaren egoera aztertzen da.

■ **"Arka galduaren bila"** ("Raiders of the lost ark", 1981). Zuzendaria: Steven Spielberg; Antzezleak: Harrison Ford, Karen Allen, Ronald Lacey. Larunbatean, 22,10etan. 30. hamarkadan amerikar arkeologari eta ikertzaile batek, balio izugarria duen tresna erauzten dizkie naziei, Jainkoak aginteak idatzitako harrien zatiak gordetzen dituen kutxa majikoa hain zuzen ere.

## bideoak



**Moises:** Bibliako pasarteak gogoko badituzue, hemen duzue modu atseginez kontatuta israeldarrek Moisesen inguruan Egyptotik alde egiteko bizi izan zuten zenbait abentura.

Istorioak 30' dirau, euskaraz. Ondoren betiko irudi popurria 15'tan eta azken 10'tan gainontzeko abenturen aurrerakinak erdaraz.

## OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

### Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)  
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasi-koa)

### Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

### Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako graba-ketak).

X G E L K A Z U D J  
 O R B A I O N A H A  
 B D U L A F I N I K  
 N A F A R H O G S A  
 A S E K I G O E N A  
 K O D A M I N L E F  
 H U T R E P A U Z T  
 O K E G E I H T D W  
 O A I R A T E G O Y  
 P I E I J F D E B A

**Euskal herria ezagutuz:**

Aurki itzazu zopa honetan  
 Iparraldeko bost hiriren izenak.

Soluzioak: 19. orrialdean.

P. Mokordo

## Horoskopoa



**ARIES**  
 Martxoaren 21etik  
 Apirilaren 20ra

Bada garaia arazo zahar hori ahazteko. Ez diozu buelta gehiagorik eman behar. Baten bat moskeatzea besterik ez duzu lortuko. Jokaera hori ez da benetan dagokizuna, beraz, ez antzerkirik egin.



**TAURUS**  
 Apirilaren 21etik  
 Maiatzaren 20ra

Momentu honetan erabaki inportanteak hartzeari utzi beharko zenioke, kalte besterik ez dizu egingo eta. Osasunak igarri dezake, eta zu galtzailerik haundiena izango zara.



**GEMINI**  
 Maiatzaren 21etik  
 Ekainaren 20ra

Gehiagi sartzen zara besteen asuntuetan; utzi besteak pakean, bakoitzak badaki zer den komeni zaiona. Zure eritzia ez da zuk pentsatzen duzun bezain ezinbestekoa.



**CANCER**  
 Ekainaren 22etik  
 Uztailaren 22ra

Berandu samar da joku horiekin ibiltzeko. Ondo pasatzen baduzu segi aurrera, baina edozein gauza gerta daitekeela jakin behar duzu. Dakizunez, suarekin jolasean dabilena erre egin daiteke.




**LEO**  
 Uztailaren 23tik  
 Abuztuaren 23ra

Izan duzun arazo sentimental horrek ez zaitu oharkabean harrapatu, baina erne ibili, hurrengo ez da hain erraz konponduko, eta probokatzan ari zara daramazun portaerarekin.



**VIRGO**  
 Abuztuaren 24etik  
 Irailaren 23ra

Bakarrik sentituko zara egun batzutan. Zure lagunak ez dira oso ondo portatu zurekin. Aurrerantzean, onena lagun horiek ahaztea izango da, zure laguntasuna ez dute merezi eta.



**LIBRA**  
 Irailaren 24etik  
 Urriaren 23ra

Besteak diren moduan onartu behar dituzu, oso exigentea zara haiekin. Kasu gehiago egingo bazenie, haiengandik gauza mordo bat ikasiko zenuke. Saia zaitetz, ez zara damutuko eta.



**SCORPIO**  
 Urriaren 24etik  
 Azaroaren 22ra

Datorren ostegunean jaistaldi bat izango duzu; egun horretan etxean geratzen bazara hobeto, besteek ez bait dituzte zure maniak jasan behar, nahiko dute beraienekin. Aprobetxa ezazu, gimnasia egin behar duzu eta.



**SAGITARIUS**  
 Azaroaren 23tik  
 Abenduaren 21era

Eguneroko lanean izugarritzko aukera izango duzu, erne ibili probetxo haundiena ateratzeko. Ematen duzun bezain azkarra bazara, ez dizu ihes egingo.




**CAPRICORN**  
 Abenduaren 22tik  
 Urtarrilaren 20ra

Orain arte harrapaladan ibiltzeagatik ez duzu batere gozatu. Galdu duzuna ezin duzu errekuperatu, baina aldatzeko garaiz zaude. Polikiago joaten bazara, gutxiago tronpatuko zara.



**AQUARIUS**  
 Urtarrilaren 21etik  
 Otsailaren 19ra

Lehenbaitlehen irten behar duzu sartu zaren asuntotik. Pentsatzen duzuna baino arriskugarriagoa da. Ez badiozu irtenbide egokia ematen, leporaino sartuko zara.



**PISCIS**  
 Otsailaren 20tik  
 Martxoaren 20ra

Nahiz eta zalantzan ibili, hartu duzun erabakia egokiena izan da, horrek lagunduko dizu biharko egunean beldurrik gabe bizi gogor honetan ibili ahal izateko.

**Langabezia Deba Garaian 1989ko martxoaren 3an. (INEM)**

**TALDE PROFESIONAL HANDIAK LANGABETUAK**

Teknikari eta Profesionalak	585
Zuzendari eta Funtzionariak	4
Administrari eta antzekoak	587
Saltzaileak eta merkatariak	211
Zerbitzuetako langileak	553
Nekazaritzako langileak	12
Meatzaritzako langileak	70
Oinetakogintzako langileak	251
Industria plastikoetako langileak	175
Peoiak	1.701
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.149</b>

**ADIN TALDEAK**

ADIN TALDEAK	LANGABETUAK
- 19 urte	605
20 - 24 urte	1.438
25 - 29 urte	808
30 - 34 urte	333
35 - 39 urte	259
40 - 44 urte	167
45 - 49 urte	115
50 - 54 urte	139
55 - 59 urte	141
- 60 urte	84
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.149</b>

**AKADEMI MAILA**

AKADEMI MAILA	LANGABETUAK
Alfabetatu gabeak	585
Lehen ikasketak	4
Eskola ziurtagiria	587
OHO	211
BBB	553
Lanbide-Heziketa	12
Erdi mailako titulazioa	70
Goi mailako titulazioa	251
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.149</b>

**EKONOMI ARLOA**

EKONOMI ARLOA	LANGABETUAK
Nekazaritza eta abeltzantza	33
Energia eta erregaiak	4
Kimika eta meagintza	32
Makina eta automozioa	1.137
Elikadura eta ehungintza	329
Eraikuntza	163
Merkataritza eta Ostataritza	227
Garraioak	43
Zerbitzu enpresak	106
Administrazioa	539
Aurreko enplegu gabeak	1.536
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.149</b>



**IKER**

**FAGOR**

**SUKALDE  
LILURAGARRIAK**

Bainugela erakusketa  
Zarugalde Kalea, 52  
Tfnoa: 79 99 42

Sukalde erakusketa  
Udala Plaza, 2/g  
Tfnoa: 79 00 42

**ARRASATE**